

«LA REVELACION QUE ME FUE LA HISTORIA». UNAMUNOREN PAZ EN LA GUERRA-Z OHAR BATZUK

Joxe Azurmendi

- (1) Esaldi bakar batean bil daiteke, esateko daukadan dena: Unamunok XIX. mendeko ikuspegiarekin ikusi du eta (b)aztertu du euskal arazoa.
- (2) Nire objekzio edo kritika nagusia beste esaldi batean bilduko dut: XIX. mendeko filosofia hura puskatu eta gainditu dutenentan, inportanteenetako bat Unamuno bera izan da; baina ikuspegi edo filosofia berria, berak ez dio aplikatu euskal arazoari.
- (3) Hori egin duena egin —eta Unamunorekin berarekin hein batean— gerraondoko euskal pentsamendua izan da.

0

Aurre-ohartxo bi, hasteko.

Gaztea nintzenean —aspaldi samar, beraz— estrukturalismoa modan zegoen. Levi-Straussek *Antropologia Estrukturala*-ren Sarrerako kapituluaren historiaren eta etnologiaren arteko erlazioak eztabaidatzen ditu. Historiak herrien bizitza *aurrerapen* terminotan kontsideratzen du: Europako herriak aurreratutako dira. Etnologiak herri «primitiboak» *irau-pen* terminotan ikertzen ditu. Hau da, historiak etapak dauzka: herri batzuek etapa horietan aurrera egiten dute; beste batzuek hasierako etapa primitiboetan iraun bakarrik. Aurreratzen duten herriak historiaren objektua dira; irauten dutenak, etnologiarena.

Ikuspide eboluzionista-positibista hau, Levi-Strauss baino lehen ere eta berdin gero, jende askok eta era askotan kritikatu izan da, eta teorian «gainditua» dago. Praktikan, ez hainbeste. Gu denok historia progresibo linealaren irudi horretan izan gara eskolatuak eta ohituak. Hau da, dotrinan ikasten genuen zuzen-zuzen Adanekin hasi eta Azken Judizioraino doan Jainkoaren historia sakratu edo teologikoan ezezik, his-

toria politiko-zibilean ere, gure ikusmoldean historia guztia *bat* da (munduko historia, gizadiaren historia, herri eta tribu guztiena) eta helburu batera progresoa doa dena. Historia, bakarra dago guztientzat (kulturak, aldiz, asko omen daude! —Horiekin nekezago egiten da guztiekin zaku bat—). Hasieran, Mesopotamian edo, kultura handi batzuk argitzen dira ezerezean, inperio asiaticoa. Hurrena Egipto agertzen da, faraoiak, piramideak; Mesopotamia hil eta desagertu egiten da liburuan. Egiptori Grezia eder zoragarriaren kapituluak segitzen dio, denok maite dugunak. Orria pasa eta Erroma handia, Mediterraneo eta Europa osoa Inperio batean biltzen dituen potentzia militarra: Grezia desagertu egiten da betiko historiatik. Ondorenean barbaroek betetzen dute Europa (progresoaren gezia ez da garbi ikusten nondik doan!). Gero, berriro, nahastaldi hori gaingitu eta Ernazimendua: Italia, Greziako eta Erromako artez beteak. Geroxeago, Espainia eta han eguzkia sartzen ez den Inperioa mundu zabalean, Frantziako Errege Eguzkia, Ingalaterra inperiala..., behetik gora beti, txandaka, lerro xuxen-xuxenean.

Eskema horretan, non gelditzen dira Yukatango maiak edo Chiapas-eko indioak? Ez dira inon gelditzen. Lekurik ez dago historian horientzat. Jakina, horiek ere, gero, Jainkoaren haurrak dira eta nolabait historiak, hau da, gure kontzientzia txarrak, errekuaratu beharra dauka! —eta atzeko atetik errekuaratu ditugu: espainolak Mexikora joan ziren eta han holako eta halako kultura eta jendeak aurkitu zituzten, etc. —. Herri horiek ez dute beren historiarik; baina espainolen historia-*ren* bitartez, birreskuratu egiten ditugu historiarako eta gure testuetan txoko bat aurkitzen ahal dute. Holakoak «historia gabeko herriak» edo «historia bazterreko herriak» dira, xix. mendean esan ohi zenez. (Engelsek espreski «historia gabeko herrien» artean euskaldunak aipatzen ditu). Hori zen xix. mendeko historiaren ikuspegia: historia gizadiaren prozesio bat bezala helburu baterantz: klase gabeko gizarteak, gizaki aske eta guztiz desalienatua, edo beste nolana hiko «Azken Judizioa», gauzak betiko bere ordena zuzenean jarriko dituen. Naturan eboluzio biologikoaren ereduaren antzera, giza historia eboluzio eta progreso bat legez ikusten da etapatan, aro batek bestea gaingituz, behetik gora igoz kulturaren eta perfekzioaren. Eskema sinplea da, hortaz: historia herri boteretsu handiek egiten dute (garaileek)¹; herri txikiak edo ahulak, garrantuak, historiaren uhol bazterrean geratzen dira. Herri handiek munduko borrokan borrokatu eta *aurreratu* egiten dute; herri txikiek, marginazioan, *iraun*; denbora bat iraun eta, gero, herri handiagoei irentsita, desagertu.

¹ Hobeto esan, Estatuak egiten dute (Botereak), ez herriek.

Kasu horri, bada! Euskal Herria, herri preindoeuroparren hondar bat da, mendi Pirinioetako bazterrean orain arte iraun duena, desagertzeko bidean, Espainiak eta Frantziak irentsita. Hau da XIX. mendearen historia eta mundu-ikuskerak. Mentalitate horrekin interesatu da funtsean —batzuetan sinpatia gehiagorekin (inspirazio erromantikoak animatzen zituen kasuetan batikbat), beste batzuetan sinpatia asko gabe—, XIX. mendean Europan egon den Euskal Herriaren «deskubrimenduan» gutaz interesatu den hainbat filologo, etnologo eta enparadu. Unamunok ezagutu duen Euskal Herriaren eta euskal gaien ikerketa, izpiritu horretan egiten zen.

Bigarren oharra. Unamunori buruz hitzegiteko hemen banago, ez da haren espezialista naizelako. Gaztetan —beste asko bezala— Unamunozalea izan nintzelako baizik (eta, nolabait, naizelako), eta hori gogoratzen duelako gomiatu nau Joan Otaegi adiskideak mahainguru honetara, oker ez banago. Beraz, gure aspaldiko Unomanuzaletasun haren lekukotza piska bat ematea dagokit gaur zalantza gabe.

Bestetik, Unamunok alderdi asko du, bai pertsonaiak, bai poetak eta bai pentsalariak. Handia, ezaguna —eta interesgarriena—, seguruenik bere filosofia edo pentsamendu *tragikoaren* aldetik izango da Unamuno munduan. Baina guretzat, hain zuzen gurekiko, Euskal Herria eta euskararekiko, edo euskal arazoarekiko, eduki zuen jarreragatik ere interesgarria da. Eta nik hemen alde horixe hartuko dut autugai. Baina ez bereber, euskal arazoa soil, haren pentsamendu filosofikoarekin lotuta baizik. Izan ere, Unamunoren sentimentu pertsonalek zer ikusi izan duten utzita (katedrarako oposizioetan Azkuek irabazi ziolako mindu omen zela, etab., aipatu ohi diren kontu horiek utzita alegia), haren jarrerak badu zerikusirik haren filosofiarekin.

Konkretuki, *Paz en la guerra* nobelan zentratuko naiz oharrotan²; eta konkretukiago, galdera honetantxe: zein pentsamendutatik dago eginda nobela hori? *Paz en la guerra*, dakizuenez, azkeneko karlistadari eta bereziki Bilboko setioari buruzko nobela da. Beraz, karlismo / liberalismo gatazkaren interpretazio saio bat. Eta, hein horretan, Euskal Herria eta Modernitatearen interpretazio saioa.

I

Nik uste dut, oso inportantea dela gogoan edukitzea, Unamunok XIX. mende horretan idatzi duela *Paz en la guerra*, eta eskema eboluzio-

² Argitalpen hau erabiliko eta aipatuko da: UNAMUNO, M. de (1988): *Paz en la guerra*, Alianza Editorial, Madril. Hemendik aurrera liburu honetako aipamenetan orria bakarrik emango da, ematekotan.

nista horrek agintzen duela —azpitik— nobelan dominatzen duen ikuspegia.

Une berean inportantea da Unamuno bera asko eboluzionatu zuen pertsona eta pentsamendu bat bezala ulertzea, modu askotako gorabeherekin. Askotan joera daukagu, izan ere: «Unamunok hau dio; Unamunok honela pentsatzen zuen; Unamunok kontraesan hauek zeuzkan —logikoak, psikologikoak—, honela esplikatzen dira»... Baina Unamunoren pentsamendua mugitu egiten zen; bere kontraesanak ere mugitu egiten ziren; itxuraz berdin daudenean ere, haien balioa ez da beti berdina.

Geroago berak Gasteizko Ateneoan 1912an adieraziko duenez, «fui yo en mis mocedades acérrimo bizkaitarra, o lo que entonces valía lo mismo»³. Alegia, euskozale amorratua izan zela gaztetan. Alde hori nahikoa nabarmendu izan da azken urteotan, ez daukagu zertan luzatu: nola Gernikako Arbola goratu zuen eta euskaraz idatzi zuen, nola «Unamunokoa» sinatzen zuen, etab. Foruen ezabaketak 1876an sekulako sualdi euskozale bat piztarazi zuen Euskal Herri osoan, hiriburu (liberal)etan bereziki. Eta Unamuno gaztetxoa bera sutan ibili omen da orduan, Euskal Herriaren errebindikaziotan historia konpleto bat hain zuzen, «hamasei edo hogeit hamar bolumenetan», idazteko asmotan (*Recuerdos de niñez y mocedad*, 1908). (Errebindikazioak, batez ere nazionalak, historiarekin egiten direla, askok pentsatzen du oraindik). Baina 1880an Madrilera doa estudiatzera. Geroko eboluziorako hiru data edo momentu bakarrik gomutatuko dut:

1884: tesia, *Crítica del problema sobre el origen y prehistoria de la raza vasca*.

1897: *Paz en la guerra*.

[Nahikoa denbora gutxi geroago —bitartean 1898 dago—, Lore Jekoetako eskandalo handia Bilbon, 1901eko abuztuaren 26an, euskararen erremedio gabe hil beharra eta euskaldunok «en la gran raza histórica de lengua española» (!) integratzeko komenentzia iragarritz].

1912: *Del sentimiento trágico de la vida en los hombres y en los pueblos*. Kontraesanaren beharra —hau da, kontraesanaren balorazio arras positiboa— gizatasunaren esentzia salbatzeko; beraz bizitzaren esplikazio edo historia «razional» batekiko distantziamentua.

Kontraesana Unamunoren gogoetan eta eboluzioan elementu konstantea da. Baina kontraesanaren eginkizuna eta balioa gizatasunean, eta historian, ez da beti berdin ikusten.

³ «Yo pasaba por un fervor fuerista, euscalerriaco, prebizcaltarresco», gogoratuko du berriro 1924ean («Mi primer artículo»).

Alegia, Unamuno ez da beti «logikoki» berdina (psikologia, esan bezala, bazterrera utzita). Esate baterako, nobelan garrantzizkoa den puntu batera etortzeko, euskara, Euskal Herria, Arana Goiri edo aber-tzaletasuna, bere iritziek beti ez dute berdin koadratzen bere pentsa-tzeko moduarekin momentuan. Beraz, 1897koa, *Paz en la guerra*, inoiz osoki abandonatuko ez duen ikusmoldea da agian Euskal Herriari bu-ruz, baina ez beti berdina geratu dena bere oinarrietan eta ez aplikazio-ren batzuetan. Kontuz ibili beharko da.

Unamunoren kontraesan gordianoa arrazoimenaren eta bihotzaren artean dagoen borrokarena da. Baina Unamuno kontraesanaren kontra-esana da askotan (Orixe bezalako batzuk desesperaraziz). Zeren-eta, bihotzaren eta arrazoimenaren kontraesan hori soluzionatuta zeukan nolabait: Unamunoren filosofian «arrazoia» definitiboki bihotzak dauka, ez arrazoimenak; baina, bestetik, ez zuen nahi soluzionatuta eduki, eta bihotzaren eta arrazoimenaren borroka etengabekoa deklaratzeko zuen.

Unamunok borroka hori konponduta zeukan Gaztelarentzat, adibidez. Eta konpondu gabe zeukan Euskal Herriarentzat. *Paz en la guerra* soluzio horren bilaketa saio bat da hain zuzen: nobela argitaratu zenerako ja Unamunok berak korrejitua zeukana, eta abandonatu egin duena geroxeago. Izan ere, Euskal Herriarentzat hasi duen bilaketa (edo historiaren gogoeta) Espainia-Gaztelarentzat jarraitu du, Euskal Herriaz funtsean ahazturik. Edo: Euskal Herria, gogoetako gai zentrala izatetik, periferikoa izatera pasa da.

Europako historia modernoan, Espainia, Euskal Herria omen den adina edo gehiago da bazterrera geraturiko herri bat, hor Afrika aldera. Historia-tik kanpo dago. Ez du Ernazimenturik izan. Ez protestantismorik eta ez zientzia modernorik dauka, ez garapen komertzialik. Afrika edo Asiako herri musulmanak bezalako herri primitiboak da. Aspaldian Espainia ez da Europa (Spengleren morfologia historikoen teoriak eta, Erteuropan egiten diren historiaren filosofiek, batere problemarik gabe asumitzen dute hori). xix. mende osoak nahikoa erakusten du (ikustea dago bidaiari frantsesen testuak); eta 98ak espainolentzat berentzat ipini du halaxe ebidentzian. Baina historia modernorik ez hori, Unamunok mistikoki glorifikatu egin du, marginazio eta basamortu historiko horretatixe Pizkunde bat predika-tzeraino, Espainiarena ezezik, Espainiak Europa osoari eta munduari eman behar omen diona (denak errotik espainolduz noski). Eta hori norbaitent-zat irrazionala eta are edozeinentzat ergela ere agian bada, izan. Baina orain irrazionala da *egiaz* eta sakon-sakonki razionala, eta Unamunok go-gor enplegatuko dizu bere burua, intrahistoriaren teoria historikoak⁴, eta

⁴ «¿Está todo moribundo? No, el porvenir de la sociedad española espera dentro de nues-tra sociedad histórica, en la intrahistoria, en el pueblo desconocido...» (*En torno al casticismo*).

aberri kontzeptualen eta sentigarrien berezketa sozio-psikologikoak, eta herrien bizitzan bizi-nahi sentimentuaren meditazio filosofikoak, eta hainbat beste gauza eta ezgauzaren, eta Don Kixoteren hilobiaren, metafisika estrainoak asmatuz nekagabe —batzuk ez batere txarrak!—. Labor: ahalegin razional galanta, irrazionalaren izenean Espainia salbatzeko Unamunok egin duena.

Egia esan, gero, Unamunoren Euskal Herriari buruzko jarrera —politikoki, sentimentalki— «abertzalea» edo erakusten omen duena, anekdotario ugaria dago berriro haren zahartzaroan, pentsamenduaren eboluzio horrekin koherentea izan litekeela, pentsarazten duena, bizitzako azken partean batez ere. Baina testu garbiak zentzu horretan, neuk ez ditut ezagutzen.

Funtsezko arazo bat dago, apika: filosofien nolanhiko gorabeherak aparte, Unamuno literatoa da; literatoak «bere» hizkuntza dauka eta hizkuntzan aberria; eta Unamunok, denbora pasa ahala geroz eta gutxiago sinestu du beharbada —Barojak, etab., bezala, bestalde— euskara hizkuntza benetan moderno bat izan zitekeenik, eta beretzat ez, edozein kasutan ere. Hor egon daiteke gakoa (psikologikoa eta razionala batera), nik uste; gaztelaniarekin ez zegoen problema hori.

Edonola ere *Paz en la guerra* lehenagokoa da. Kontraesanetik idatzia da.

II

Gauza bati ohartu behar zaio, bitxi samarra da eta: Bilboko setioa, edo nahi bada 2. karlistada, Bizkaiko betiko historiaren eta are munduko historia unibertsalaren paradigma bezala kontatzen da. Uste dut, Unamunok berak nobelaren 2. argitalpenari prologoan esaten duena, jaramon egitekoa dela: «aquí está el eco, y acaso el perfume, de los más hondos recuerdos de mi vida y de la vida del pueblo en que nací y me crié», —eta jarraiko hau oroz gain: «aquí está *la revelación que me fué la historia* (nire azpim.)—. Nobelaren ehunurtekoa ospatzen dugun honetan, historiaren errebelazioaren alde honi erreparatuko diot nik, nobelak duen beste hainbat alderdi utziz.

Pasarte luzetxo bezain argigarri bat aldatuko dut honera, beste iruzkinik gabe. Gerra aspalditxo bukatua da, bakoitza bere zereginetan dabil berriro jendea Bilbon. Pachico, mendian, gogoetan ari da:

«¡Las montañas y el mar! ¡La cuna de la libertad y su campo! ¡El asiento de su tradición y el de su progreso! Desde la altura contempla a lo lejos, quieto y silencioso, al mar inquieto y bullanguero, junto a las montañas silenciosas y quietas. Antes de hacerse el hombre, pe-

learon guerra turbulenta los elementos: el aire, el fuego, el agua y la tierra, para distribuir el imperio del mundo, y la guerra continúa lenta, tenaz y callada. El mar, gota a gota y segundo tras segundo, socaba las rocas; envía contra ellas ejércitos de animalillos que nutre en su seno para que la carcoman; y de los despojos de aquéllas y de éstos muelle su lecho, a la vez que los torrentes de las nubes, sangre de su sangre, desgastan a las altivas montañas, rellenando los valles con fecunda tierra de aluvión. El elemento nivelador e igualitario, el que recorre, como el mercader que lo surca, las tierras todas, vivo porque en su seno recobran el calor del Ecuador y el hielo del Polo, mina la altivez de los viejos montes, encadenados al lugar en que nacieron.

Desde la cima de la montaña no veía Pachico alzarse las olas ni oía la canción del mar, viéndole en su quietud marmórea y comprendiéndole tan asentado y firme en su lecho como a las montañas en sus raíces pedernosas. Y volviendo la vista a éstas, que defienden y abrigan a los pueblos, dividen y unen las razas y naciones, distribuyen las aguas mismas que las consumen, y embellecen y fecundan los valles, piérdese en largas divagaciones en torno a las luchas e invasiones de las razas y las gentes a la fraternidad final de todos los hombres, oculta en el porvenir, para llegar a pensar en su Vizcaya, donde uno de cuyos hijos abren con su laya y con su sudor riegan la tierra de la montaña, arrancan otros su pan al mar, y otros lo surcan a lejanos climas. Y piensa en la sangre allí derramada por guerras en cuyo fondo palpita el choque del espíritu del mercader con el espíritu del labrador, del hombre del mar y la ambición con el de la montaña y la codicia, choque que produce la vida, como el de los hielos del Polo y los calores del Trópico en el océano. Muéstrase la Historia lucha perdurable de pueblos, cuyo fin, tal vez inasequible, es la verdadera unidad del género humano; lucha sin tregua ni descanso. Y luego, zahondando en la visión de la guerra, sumerge su mente en la infinita idea de la paz. Mar y tierra celebran, luchando bajo la bendición del cielo, su unión fecunda, engendradora de la vida, que aquél inicia y ésta conserva» (318-320).

Beraz, liburu hau Unamunoren 1897ko histori filosofiaren traktatu txiki bat da, nobelatua. Eta hemen Unamunok inolako soluziorik ez dauka oraindik arrazoimenaren eta bihotzaren arteko borrokarentzat: arrazoimena dago alde batetik eta bihotza bestetik. Nobelako gertakarien eta pertsonaien *esanahi historikoa*, nobela enmarkatzen duena, rasionalki soil baloratzen da: karlisten alderdia erreazionari batzuen da, etab.; baina karlistak, pertsonak, hau da, gertakaria eta pertsona horiek berak, *humanoki*, bihotzarekin tratatzen dira. Eta sinpatia handienarekin tratatuak karlistak dira, ez liberalak. Bestela esan: filosofikoki begietsita, historiko-razionalki, karlistak iraganeko jendea dira, baina zerbait positiboa inkarnatzen dute humanoki (Unamunoren begitan);

liberalak karlistak bezain iraganekoak dira orobat, eta ezer positiborik ez dute adierazten. Nobela idatzita dagoen ikusgunea, karlistak eta liberalak baino teorikoki geroagoko momentu historiko baten suposizioarena da. *Etorkizun* honen presentetik juzgatzen da karlisten eta liberalen rola historian.

Nobela osoa elkarren kontraesaneko elementuen arkitektura bat bezala dago eraikia, oposizio bipolar nahikoa sinplez:

Bizkaia vs. Bilbo
Laborantza vs. Merkataritza
Landalurra vs. hiria: hots,
Karlistak vs. Liberalak.

Oposizio historiko edo sozial hauei nolabait oposizio kosmiko edo filosofikoak gehitzen zaizkie: Natura bera dominatzen duten oposizioak, zerua/lurra, mendia/itsasoa (ibaia), etab.; eta, iragana eta oraina bezalakoak aparte historian, bilakatze ororen ondo-ondoko oposizio unibertuala: Natura/Kultura. Eta oposizio guztiak dominatuz —hau oso inportantea da— horien guztien sintesi handia azkenean.

Oposizio funtsezko hauen barnean gero oposizio txikiak daude, pila bat. Batzuk orokorrak: gizonak/emakumeak, etab.; eta, adibidez, oso nabarmena, emakume eta ama karlista eta ama liberalena; beste batzuk, pertsonaia partikularren artekoak; edo karlisten artekoak, liberalen artekoak. Badaude oposizio interesanteak —euskaldunen eta gaztelauena esaterako, Unamunok biziki nabarmentzen duena—, arreta gehiago mereziko luketenak, baina hau ez ordua, ez lekua da horretarako.

Honela *Paz en la guerra* mugimendu historikoaren, baina nolabait mugimendu kosmiko guztiaren nobela bat da: tradizio aleman handian nahi den epika edo entziklopedia unibertuala legez.

Horregatik interesantea da ikustea Unamunok non kokatzen duen bere burua mugimendu horretan. Izan ere Unamunok, «Pachico» pertsonaian, bere burua nobelan sartu dizu. Eta hori da kurioa: beren beregi, ez du inon kokatzen, «historian lekurik gabe» uzten du! Harrigarria, zeren-eta, nobelan «historian lekurik gabekotzat» jotzekoak diren karlistekin, denboraren aurka alferrik entseiatzen diren nekazariekin, inola ere ez dago; baina gutxiago dago liberalekin. Karlistak baino beste modu batera, baina bera ere historian lekurik gabe dago! Ez dago irabazle historikoekin. Aitzitik, bere sinpatia handia karlistenganako da.

Nobelako azken orrietan badago frase bat, nire ustez klabea dena. Gerra bukatu zen, bizitzak aurrera segitzen du, karlisten eta liberalen posizioak nahikoa desdibujatuak dira. Haien garaia «pasea» da zalan-tza gabe. Ez karlistak karlistak dira eta ez liberalak liberalak, Bilbon.

(Unamunok jada 1896an adierazten zuenez: «el liberalismo está aquí muerto, total y absolutamente muerto en la burguesía»; liberal bakarrak sozialistak iruditzen zitzaizkion!). Halako batean gerran hildako Ignacio mutil bilbotar karlistaren oroimena egiten da. Eta «un alma hermosa» zela, esaten da hartaz (317; testuan bertan kakotx artean). Ez dakit irakurlea gaur ohartzen den, baina esaldi hori (orain gaztelaniaz «alma bella» esaten da gehiago) historia handiko espresioa da. Eta esanahi ikaragarrikoa da Pachico-Unamunoren omenaldi bezala gerran hil den mutil karlista bati.

«Arima ederra», Goetheri hartu eta Fr. Schillerek *Grazia eta duintasunaz* (1793) saioan, Kanten errigorismo moralari, naturaren eta askatasunaren sintesi bezala kontrajarri dion kontzeptu neoplatonikoa da⁵. «Arima ederra» ez da morala inperatibo razional bategatik, ez kanpotik agindu batek obligaturik, bere barrutik baizik. Arima naturalki eta espontanioki morala da. Haren baitan ez da naturaren eta kultura edo zibilizazioaren oposiziorik ematen, berez da ona: natura berez garbi-garbia da, idealen jarraitzailea, izpiritu orbangabea, bihotz-zabala, ongilea, gizakideen errukitsu eta maitalea, gaiztakeria gabea. «Arima ederrak» Erromantizismoan zabalkunde handia izan du, Novalisen obran esaterako. Hegelen Fenomenologiako kapitulu inportanteenetako bat kontzeptu edo figura horri eskaintzen zaio. «Arima ederra» ez da historian borroka egin eta garaitu eta nagusitzeko izpiritua (ez da Napoleon bat); naturaren opari eder bat da —lili baten antzera— eta azkenean historiaren martxa ankerrak zapaldu egiten du hankapean. («Arima eder» natural bat Jesus Nazaretetako da, historiaren errealismo erromatarrek gurtzifikatu egingo duena). «Arima ederrek» ez dute historia egiten. Historiak zanpatu egiten ditu. Baina *historiak zentzu bat*, horiei eskerrek dauka, esaten du Unamunok. Ignacio mutil karlistak bere bizia eman du kausa karlista «galduagatik». «¿Una vida perdida?» —Ez, «tales vidas son la atmósfera espiritual de un pueblo, la que respiramos todos y a todos nos sustenta y espiritualiza» (273)—. Unamunok gerran hiltzeko ohorea egin dio Ignacio «arima ederrari». Ederregia zen egunoroko bitzita lardatsean, karlistak endekatzen ari diren eta libera-

⁵ Ik. «Über Anmut und Würde», in: SCHILLER, F. (1993): *Sämtliche Werke*, bol. V, Darmstadt, 468-469. «In einer schönen Seele ist es also, wo Sinnlichkeit und Vernunft, Pflicht und Neigung harmonieren, und Grazie ist ihr Ausdruck in der Erscheinung». Ik. orobat «Über naive und sentimentalische Dichtung», *ib.*, 724 (bihotz ederraren eta arima ederraren diferentzia), 726 (nola berezi arima ederra egiazkoa itxura hutsezkotik). Orobat «Über das Erhabene», *ib.*, 795 («arima ederrak» sufritzen duena bere ideal moralak nahi bezain laster gauzatzan ez direlako munduan, - aspektu hau Hegelek bereziki nabarmenduko du).

lak jada liberalak ez diren Bilboko egunorotasunean bizitzeko. Haren oroimen ederrak bizitzari sentido bat ematen jarraituko du.

Horixe da, funtsean, nobelaren funtsa, labur-labur. *Paz en la guerra* 1897koa da. Eta badakizue, gero 1898 dator segituan: intelektual espainol denak («98ko belaunaldia»), munduan eta historian Espainiari geratzen zaion lekuaren bila hasi dira zalapartaka, eta Unamuno horien artean. *Vida de don Quijote y Sancho*, etab., Unamunok Espainiaren eta historiaren filosofia berri bat garatu du orain: kontraesanaren eta arrazoiz kontrako bizi-nahiaren sentido positiboak. Orain, fedea, borroka, sentimentu tragikoa, historiaren bihotza bilakatuko dira. Don Kixote, izpiritu inutil hori, edo San Joan Gurutzekoa bera, historigin garrantzizkoak bilakatu dira («arima ederrak» historiginean)... Tamalez, filosofia horren aplikazio bat Euskal Herriari ja ez du egin, Euskal Herriaren filosofia berri bat.

Ikus dezagun orain xehekiago nobelaren aipatu funts hori.

1

Unamunoren nobelaren erdigunean gerra dago eta, karlistak eta liberalak, bi bando etsai. Halere ez da ikusten, pertsonen eta ideien edo horien interesen artean dagoenik konfliktua. Nobelako pertsonaiak, karlistak hala liberalak (izen propiorik duten heinean behintzat), interes berdintsuetakoa eta jende berdintsua dira denak, izaeraz nahiz pentsaera eta jokaeraz; laneko eta familiako euskaldun jende elizkoi gutxi-askoa, ez erlijioiko edo ideologiako, ez ekonomiako interes oposizio handiekin. Bakarrik, batzuk liberalen umeak eta besteak karlisten umeak dira. Besterik ez. Gizarte horretan ez dago gerra bat beren artean sortzeko inolako ziorik. Gerra etorri datorrenean, hortaz, urrutiko «nondibait» etorri eta gizarteari gainezarri egin zaiola ematen du, patu historiko saihestezin baten antzera datorren hodeia, ez bertan jende harengandik sortu. Azkenean, zinez eta benetan ez liberalak liberalak dira eta ez karlistak karlista (agian hauek zerbait gehiago bai), baizik guraso liberalen umeak liberalak eta guraso karlistenak karlistak, eta ororen gainetik —kontuzarrak utzita— denak anaiak eta «herriko-semeak». Etorri eta gero ere gerrak ez dirudi beren zinezko lana, entusiasmo gutxi-askorekin jokatzea tokatzen zaien antzerkiko rola baino. («¿No estaban en parte representando la guerra, divirtiéndose con ella?») (196). Historia guztiz indiferente da giza ekimen indibidual zein kolektiboekiko. Historia ez dute pertsonak egiten, beren ideiek, usteek, asmoek. Haien gainetik diharduten indarrek egiten dute zinez egin. Hala esplikatzen du Pachicok: «Les dijo que todos tienen razón y que

no la tiene nadie, y que lo mismo se le daba de blancos que de negros, que se movían en sus casillas como las piezas del ajedrez, movidos por jugadores invisibles» (81). Konfliktoaren esplikazioa ez pertsonen eta ez klase edo mugimendu sozialen mailan dago (gatazka ideologiko edo teinka ekonomiko sozialen batzuetan). Hots, gerraren arrazoa ez da soziologikoa.

Baina historikoa ere ez da!, zentzu estriktoan historiarik batere ez dago-eta nobela honetan. Hau da, denborak ez du zeresanik; jazoera historikoen harian, ez dago aldian aldiko kausarik eta lantzean lantzeko arrazoirik, gerra edo ezer esplikatzen. Noizpait berriro gerra badago, ez da ezer berririk, betiko bera da dena: jendeak, oposizioak, gerrak eta bakeak. Gehienez ere gaineko estalkiak dira berriak kasu bakoitzaren azalgaian: barnean beti dagoena da «el pleito que llena la historia de Vizcaya, la querrela entre la villa y el monte, la lucha entre el labrador y el mercader» (208; ik. 150, 176)⁶. (Hain zuzen, Bizkaiko historiaren interpretazioan nahiko arrakasta eduki duen eskema sinplea!). Oposizio esentzial horrek —Jaurgoa vs. Bilbo—, Bizkaiko historia oso-oso berak esplikatzen du, Erdi Aroko Ahaide Nagusien arteko guduetatik Foruen sorrerara, Modernitatearen krisira eta karlistadetaraino. Ez Bizkaikoa bakarrik: Troiaz gero halaxe omen da! Denbora badoa, baina denboraren barruan funtsa gelditu dago. Ezer berririk ez. Gerra, beraz, ez da gizakien eta belaunaldien eta klase sozialen baliabide bat; funtsen-funtsenean ez da historiaren bitartekoa ere: Natura denboragabearen tresna da funtsean.

Historia ez, soziologia ez: zer dago, orduan? Dagoena, tenore honetako Unamuno-Pachicoren, esan bezala nobelan osoki agintzen duen, filosofia «positibista» da (azkenean historia egiaz ukatu egiten duen bere historiaren filosofiarekin). Haren pentsamenduaren traiektorian pittin bat pausatzea komeniko dugu.

Pachico-Unamuno gazte-gaztetxo joan da Madrilera Unibertsitatean estudiatzera (hamasei urterekin: 1880). Bere haurtzaro umezurtzean hezkuntza oso erlijiosoa izan zuen: ez «besteek bezala», baizik besteek baino nolabait jasoago, intelektualagoa. Mutikoa, etxean hala ikusten baitu, bere fedea razionalizatzen biziki saiatzeko da (Chateaubriand eta beste apologista erromantikoak irakurriz), eta «ikazkinaren fedeko» fe-

⁶ Ik. Halaber C. de Echegarayren *Las Provincias Vascongadas a fines de la Edad Media*-ren erreseina, in: UNAMUNO, M. de (1966-1971), *Obras Completas*, Madril, bol. IV, 226-229. «Fue la tierra llana contra las villas» (227). «La enemiga entre villas y la tierra llana, el mercader y el labrador, es un hecho histórico central en la vida vasca» (229). Hor dago «la clave de la historia vascongada». Ik. Tesi hau berau nobelan Bilbo gaineko Zurbaran etxe-torreaz dihaduela (149-150).

dedun irrazionalak destainatu egiten ditu, kristau xume arruntak alegia. Katoliko superkatolikoa eta euskozale amorratua da mutikoa Bilbo artxikatoliko eta euskozale sutsuan. Unibertsitatera joan denean, «Pachico casi lloró tarareando el «Adiyo» de Iparraguirre, al trasponer la Peña de Orduña, dejando a su Vizcaya para ir a caer en medio del tumulto de ideas nuevas en que hervía la corte» (77). Gortea ideia moderno guztien irakindegia da, edo hala iruditzen zaio behintzat berari. Izan ere —Unamunok berak bere biografia honetan halatsu adierazten digu—, Bilbotik Madrilerara joatea, kobazuloko ilunbetik egun-argiaren «errebelaziora» igotzea bezalatsu bizitu du hark. Tradizio eta ipuin historiko ilunetatik zientzia garbira. Alegia, intelektualki Bilbo linboa bezala da, bere katolizismo eta euskozaletasun probintziano estuekin; Madrilen «era la época en que con el Krausismo soplaban vientos de racionalismo»⁷. Pachico-Unamuno gaztea «el primer curso iba a misa todos los días y comulgaba mensualmente, pensando mucho en su país, más que en el real en el fantástico que le habían dado sus lecturas [Trueba, Navarro Villoslada, Goizueta, Araquistain, Vicente Arana ziren horiek!]⁸, y lleno de una soñadora melancolía». Katolizismoa eta euskozaletasuna, biak batera elikatu ziren haren bihotzondoan etxean eta eskolan, eta «haurtzaro» biek bide bera eramango dute orain. Ideia berrien ziri-molan buru-belarri sartuta, Madrildo mundu handian, laster itxungi da haren fedea. Bere euskozaletasun gartsua ere fantasia eta sentimentu maskal subjektibo bat besterik ez dela, deskubrituko dizu halaber orain zientzia unibertsal gotorreko mutil bilakatuak; ez duela ondope intelektual eta razional sendorik; eta «melankolia» hori ere berdin gaintituko dizu. «Sentimentu» haurtzarotar horien ordeztu bere burua bete-beteko du «de mil ideas vagas y resonantes, de retazos de Hegel y de positivismo, recién llevado a Madrid, y que era lo que más le penetraba» (78).

Unamuno gaztea zientzizale egin da. «Pedid el reino de la ciencia y su justicia y todo lo demás se os dará por añadidura». Unamunoren «fase positibista» izango da hau, orohar; 1882 inguruan hasi eta justu 1897ko martxora arte hain zuzen: zientzia eta arrazoia besterik toleratzen ez duena, «mito» eta «ipuin» guztien kritiko sumina, Unamunoren beraren asmoan behintzat. (Unamunok berak ezagutuko du Pachicoren

⁷ Krausismoarekin ez dugu liberalismoa ulertu behar: Pachico kenduta, Celestino abokatu karlista da («tenía siempre en boca a Kant y a Krause») nobelan dagoen kultura filosofiko eta kritiko piska bateko pertsonaia bakarra. Honek Balmes bezala ezagutzen du Rousseau, eta De Maistre bezala entziklopedistak. Beharbada Unamunoren beraren antzeko irakurketak egin da, beraz, eta bere kultura «liberal» guztiarekin ere erradikal-ki antiliberala.

⁸ *Recuerdos de niñez y mocedad*

fase hori egiaz fede batetik beste fede baten sura pasatzea legez: «era su estado espiritual el de aquellos que sobre la base de la fe antigua, dormida y no muerta, han cobrado otra nueva»). Ez zientzia, zientziaren fedea baizik. Esan bezala, guztiz izpiritu horren barruan jorratua da bere tesia (1884). Eta izpiritu horretantxe, zerbait bigunduan, ondu da *Paz en la guerra* nobela. Ipuin eta mito denak apurtu eta gero gelditzen den Euskal Herria da —benetan, zer gelditzen da?— nobelaren barne-neko gaia: «euskal arima».

Doi-doi zein izan den Unamuno positibistaren pentsamendua, haren eboluzioan bestelako pentsaera batzuekin baino ez da errazagoa jakitea. 1886an «Filosofía Lógica» liburu bat idazteari ausarki ekin dio, bere pentsamendu positibistaren suma izan behar zuena, laster baztertera utziko duena ordea. Unamunok berak bere aro hau zientifista edo intelektualista bezala zakarki arbuiautuko du geroago (oso modu teologikoan, egin ere: «la ciencia... diseña los corazones y apaga en ellos la lumbre de la esperanza, de la caridad y de la fe»). Dazkagun datu apurretatik, gauza bat da segurua: H. Spenceren irakurketa eta eragin bortitza: «luego me enamoré de Spencer», diosku berak. Oposizioetako bere programetatik ondoriozta dezakegunez («Metafísica, 1888» eta «Metafísica, 1890»), Spencer kasik kopiau egiten du —hori «modu hegeliano» batean irakurri, Unamunok berak dioenez, baina Hegel askoren beharrik ez da ikusten, egiten duen irakurketa egiteko—. Unamunoren filosofia zalantza gabe Spencerena da momentu honetan puntuz puntu. 1893-1895 artean Spenceren hainbat testu itzuli du Unamunok berak espainolera, beste itzultzaile batzuekin batera, «La España Moderna» argitaratuz joan dena. (Gogoratuko denez, *Amor y Pedagogía*-n Spencer horrexen satira kupidagabea egingo du geroxeago, 1902an). Orduko garai-giro filosofikoa Europan piska bat gomutatzeke: Bergson izan da Spencerek asko influentziaturiko beste bat, hau ere gero bere bide «irrazionaletatik» joango dena. Ch. du Bosi deklarazio batzuetan Bergsonek adierazten duenez, Frantziako Unibertsitateetan Spencer jaun eta jabe absolutu zebilen 1870/80 urteetan. Ezaguna baita, Espainian «zientzia modernoa» —hori ingelesa edo alemana bada ere!— Frantzian ikasi ohi dela, beharbada kasu honetan ere horrelaxe gertatu dela, susma genezake. Dena den, Italian ere Spencer nagusi zebilen orduan. (Hain zuzen Spencer liberal erradikalaren irakurketa sozialista Espainian dibulgatuko duen Enrico Ferriren liburua —*Socialismo y ciencia positiva*— Unamunoren lagun batek itzuli du 1895ean)⁹. 1876an hasi dira Spenceren itzul-

⁹ Spenceren sarreraz pentsamendu espainolean, ik. PÉREZ DE LA DEHESA, R. (1973): *Política y sociedad en el primer Unamuno*, Barcelona, 90, 14. oin-oharra. Spenceren in-

penak Espainian zabaltzen. Aipa dezagun, hortaz, laburki, Spenceren pentsamendu eragintsu hori.

Unamunok behin eta berriz esaten duenaren aurka, Spencer ez da Darwinen hedatzailea filosofiara, baizik Darwin baino lehenagoko eboluzio orokorraren filosofoa. Eboluzionismoaren filosofo gailena. Eboluzionismoak esanahi du, errealtatea, ez beti izan, baizik prozesu batean bilakatu egiten dela. Gizartearen filosofiara mugatuz orain: gizartea natura organikokoa da, eta soziologiako metodoek biologiakoen parekoak izan behar dute. (Gizartearen organikotasunaren ideia hau sakonki errotuko da Unamuno baitan: «En España hace falta una democracia orgánica» esaten, 1906an hasi da hura —haren «individualismo liberala» beti txit partikularra izan da—). Organismo biziduna bezala gizartea, hiru sistemak osatua dago: elikapenaren sistema (hori gizartearen laborantza eta industria dira), banaketaren sistema (garraioa eta merkataritza) eta arauketa sistema (organismoan garuna eta nerbio sistema, gizartean gobernamendua). Base horren ganean, historia eta eboluzio soziala elikadura eta banaketa sistemen arteko, hau da, laborantzaren eta komertzioaren arteko interesen «bizi-borrokak» gidatzen du. Historiaren eboluzioan masa sozialak handitzen eta zibilizatzen doaz, gobernamenduek ere diziplinatuak izaten eta, azkenean, premien asea ziurtatu eta bizi-borroka gutxitu ahala, eta nazioen artean solidaritasuna gehituz joanez, gizadi osoaren eta nazio guztien errepublika bakarrean bakea nagusituko da betiko. Gerraren xedea bakea eragitea da: gerra da bakearen ama.

Horra Bizkaiko historiaren «betiko» dikotomia sakonaren eskema: ez da, beraz, Unamunoren fakto historikoen analisi handi bat, filosofia eskas bat baizik (polita, noski, esplikazio metafisikoak beti izaten diren moduan). Unamunok ez du Spenceren eskema orokorra partikularizatu eta Bizkaiari aplikatu besterik egin¹⁰, handik hara bere nobela (tituluak berak aski adierazten du: *Paz en la guerra*) karlistaden eta Bizkaiko his-

fluentziaz Unamunoren pentsamenduan, 89, 13. oin-oharra. Harrez gero gehitzekoak: CHABRAN, H. R., «M. de Unamuno: traductor de Herbert Spencer», in: *Anuario del Departamento de Filosofía* (Universidad Autónoma de Madrid) 3-4 (1986-88), 33-43. ID., «Unamuno's early Salamanca years», in: *Revista canadiense de estudios hispánicos*, IX/2 (1987) 243-256.

¹⁰ Unamunok ez du batere problemarik izango, eskema hori Bizkaiari bezalaxe gero berdin-berdin Espainia osoari, eta Argentinari berari, aplikatzeko: «Esta triste inconsciencia de las masas desparramadas por el campo es la aliada de todo conservadurismo y hasta de toda tiranía. En ella se apoyó vuestro Rosas [1835-1852 artean Argentinako diktatorea]; de ella vivió nuestro carlismo» («La civilización es civismo», 1907). Ez dauka gu analisi bat, historia unibertsalaren «lege» edo apriorismo soil bat baizik dogma bezala: «La ciudad contra el campo: tal es la lucha».

toria osoaren filosofia bat (historia apriorikoa) eta gerraren goraipamen bat, bake unibertsalaren eragile gisa, bihurtuz. (Irakur bitez nobelaren azken orriak, Pachicoren «meditazioak»). Karlistak eta liberalak eta behialako banderizoak, beti kontu bera dira. Historiarik ez dago. (Oraingo HB berdin karlistak eta beraiek berdin liberalak egin nahi izaten dutenek, historia askorik ez daukaten eran). Esentzialismoa esaten da? Hori da esentzialismoa, hori!

Spenceren eskeman —marxismoan ez bezala— industriak eta laborantzak alderdi bera egiten dute —gizartearen elikapen sistema—. Unamunok, bada, eskema horri jarraiki, fenomeno funtsean berdintzat joko ditu karlismoa eta kantonalismoa ere: «(...) así se formaba, poco a poco, de abajo arriba, como vejetación que va ganando suelo, la insurrección carlista, mientras el cantonalismo federal se obstinaba en resistir en industriales ciudades levantinas». Industria eta laborantza bat, bien etsaia komertzioa da.

Spencerengandik gehiena apartatzen den kapitulua, kuriosoki, erlijioarena dizu¹¹. Spenceren filosofia «Ezagutezinen» aitortzan bukatzen da. Unamuno bere maisua baino zientifiko eta positibista huts erradikalagoa da gai honetan: hemen zerua eta lurra dago goian eta behean, ez transzendentziarik. Pentsamendu honen barruan, nolana ere, Naturak eta gizadiak edo izpirituak hor barnenean osoki bat-bat egiten baitute, ez da harrigarria panteismo mistiko baten tonuak aurkitzea («la comunión entre el mundo que le rodea y el que encierra en su propio seno», etc.)¹². Ezagutezinen lekuan mendiek —«en maravillosa revelación natural»— irakasten dioten panteismo antzeko bat dago beraz. Unamunok, intimitate kasik erlijiosoan, Bizkaiko lurrarekin bat-bat egiten du. Puntu interesgarriak, hain zuzen momentu horretan agian Gaztelako paisaiaren mistika berri bat deskubritzen ari den gure Unamunorentzat —Bizkaiko mendiekin sentitu duen batasun panteistikoa gabe—¹³. Gaztela, lur zabal tragikoa. Baina honek gure gaia zabalgotzea eskatuko luke. (Izan ere, gerora, erlijioso eta —Gaztelako

¹¹ Agian ez hain «curiosoki»: Spenceren «Ezagutezina» R. Ardigòk baztertu du, eta spenceriano italiar bortitz honek nabarmena da Unamunoren pentsamenduan izan duen eragina. (Ez ote du funtsean Ardigò baitan ezagutu Spencer bera?). Iruditzen zait, marxismo edo sozialismoari Unamunok egingo dion «ekonomizismoaren» kritika ere Ardigòri hartua duela. Beharbada Unamunok sozialismoarekiko eduki duen jarrera ambiguo guztia da —sinpatia eta interes handia, batetik (batbatean!), ikuskera kritikoa, bestetik, aldi berean) Aldigòren kopia.

¹² Nondik nora ageri ote dira joera panteistaok? *En torno al casticismo*-n «panteismo krausista»z mintzo da Unamuno bera.

¹³ «No hay aquí comunión con la naturaleza» («La casta histórica de Castilla», 1895eko martxoan), *En torno al casticismo*.

lurraren— natur mistikoa izango da Unamunoren arlo nagusi absolutua, haren jarrera politikoak ulertzeko ere klabea).

Justu noiz idatzi ote da *Paz en la guerra* eta noiz zati bakoitza? Esan bezala, ez naiz espezialista. 1885-1886 artean idatzitakotzat ematen da, 96an «berrikusi» egin omen zuelarik. Zer moduko berrikuseta? Izan ere, fase positibista/zientifista honetan bertan, 1891etik aurrera Unamunoren testuetan Marxen influentzia hasten da nabaritzen; 1894ean marxismoari «el único ideal hoy vivo de veras, (...) la religión de la humanidad» derizkio, bere deskubrimendu berrieekin beti ohi duen suhartasunaz («enamórabame de lo último que leía», aitortu du bere gaztaroaz), eta PSOEn afiliatu da —Salamankan dagoelarik, Bilboko Agrupazioan (harez gero hiri horretako «La lucha de clases» aldizkarian erregulariki kolaboratu du)—. Marxista ortodoxoena bezala gogor hasi eta, berehalaxe sozialismo humanitario antzeko postura baterantz eboluzionatuz doaz haren testuak. Geroago batean marxismoa ere zientifistatzat arbuiatuko du: «marxismo hidrópico en pedantería científica». 1896: anarkisten *Ciencia Social*-en kolaboratzen hasten da («comprendí que mi fondo era y es, ante todo, anarquista»). Zinbilizantbulu, hiru urte eskas eutsiko dio Alderdi Sozialistan eta utzi egingo du (1897)... Baina, aparte urrutiko erreferentzia hutsalen bat iragaitzean zeharo esanahigabekoa («descargó la gran tormenta revolucionaria del 48 y el socialismo alzó cabeza»; edo don Juan «liberalotearen» ateraldia behin: «Con esto no nos faltarán absolutistas y comunistas») *Paz en la guerra*-n ez sozialismoaren eta ez pentsamendu edo sentimentu sozialisten arrastorik ere somatzen da. Are testu ez-sozialista nabar-nabarmena da hori makina bat aldetatik —gerraren balorazioan, adibidez, puntu aski zentral bat alegatzeko (oso bestela baloratzen da gerra ja 1896an *Ciencia Social*-en argitaraturiko «La crisis del patriotismo»n)—¹⁴. Esan nahi dut, *Paz en la guerra*-n historiaz interesatzeko Unamunoren moduak zerikusirik ez duela 91tik aurrera sumatzen diren haren begikera sozialekin. Aitzitik, haren ohiko modu berbera dela funtsean; alegia, «positibista» bai, baina nahiko dogmatikoa, metafisiko hutsa. xix. mendeko filosofiakoa.

¹⁴ Orohar historiaren balioespen gutzia ageri da aldatuxea, historian arrazoia garai-penak ematen duelako «errealismo» hegelianoa bereziki («las cosas son como son», etab.); hemen «en triunfando tienen razón, que es lo propio del bruto», esaten da alde-rantziz irabazleaz. Nobelan oraindik gusto hartzen zaion tesi/antitesi joko dialektiko pis-ka bat simple horri «fuera de moda» irizten zaio jada. Unamunoren eboluzioan beste momentu bat da, zalantza gabe.

2

Tesia bukatu eta, 1884 eta 1891 artean Unamuno Bilbon bizi izan da, oposizioak prestatzen eta egiten, hiriko jendearekin egunoro tratatzen, Bizkaiko eta Euskal Herri guztiko mendiak eta basoak ibiltzen. Nobela honen egilea, Bilborena adina, Bizkaiko herrien, baserrien¹⁵, jendearen, lan eta jaien, ohituren ezagutzaile oso on, kasi folklorista bat dela, nabaritzen da¹⁶. Egungo Unamunoren irakurlea zer bait harrizterainoko «euskal sentimentu» patriotiko bero batez idatzita dago, egon ere, *Paz en la guerra*. Nobelako mezu nagusia euskaldun guztion batasunarena da¹⁷. Izan, izango dira etsaiak batzuk eta besteak, eta ibiliko dira elkarri irainka, behar izanez gero tiroka ere, baina «con vivo fondo de familiaridad en la pelea, sintiéndose del mismo pueblo, hermanos» (195). Bilboko neskak soldado setiatzaileekin dantzan ariko dira igande arratsaldeko erromerian, etab. Bilboko setioa ere mutikoen jolasborroka antzeko zer bait da. «Resultaba además una encubierta farsa aquel asedio. Los chicos que las llevaban a ejecución, vizcainos casi todos, dejaban entrar vituallas de matute cuando se trataba de servir a pariente, o amo, o conocido» (197).

Honen atzean egon daitekeen Unamunoren garai honetako foralismo intransigentea, «prebizkaitarrismo» eta are independentismoa ere agian, hemen daukagu J. A. Ereño Altuna, guzti horren ikertzaile eta ezagutzaile hoberena bera baita¹⁸, eta ezin ihardungo natzaizue ni. Alabaina nobelan honez gero dagoena ez da behingo foralismoa ba-

¹⁵ Iruditzen zait nobelan deskribatzen den Domingoren baserria (102-103) —hor sukaldean familia eta behiak nolabait batera bazkatzen dira, gizartearen eta naturaren armonia osoan— Humboldttek Durangon deskribatua dela.

¹⁶ J. A. Ereño Altuna «primer Unamuno folklorista»z mintzo da, cfr. *De psicología de los pueblos y de folklore*, Bilbao 1995, 8. «Todo su afán durante esta primera época era, ciertamente, conocer el *Espíritu de la raza*, el espíritu de esa individualidad colectiva que es el pueblo vasco, depurando rigurosa y críticamente su historia, su lengua, su literatura, sus costumbres, sus creencias, tradiciones y leyendas populares auténticas, que muchos habían o estaban embrollando de manera inauténtica, «con fantasmagorías», ficciones, «fantásticas elucubraciones» e innovaciones extrañas» (22).

¹⁷ Hori izan da Unamuno gaztetxoaren lehen artikuluaeren gaia ere —Sagarminagaren «La Unión Vascongada»ko xede nagusia hori zen bezala—. Honela gogoratu du Unamunok berak urteak geroago: «(...) Me sentí llamado a exhortar a mis paisanos, a mis conciudadanos, a la unión, a olvidar las diferencias entre liberales y carlistas —entonces no había más—, a borrar el recuerdo del 2 de mayo de 1874 [Bilboko setioaren amaia], a formar todos un solo frente bajo la enseña de Euskalerría», cfr. «Mi primer artículo», in: *Obras Completas*, loc. cit., bol. VIII, 521.

¹⁸ Ik. UNAMUNO Y JUGO, M. de(1994): *La Unión constituye la fuerza*, edición e introducción de J. A. Ereño Altuna, Bilbao.

karrik eta Sagarminagaren jarraitasuneko euskaldun guztien bandera guztietako unionismo vasco-navarroa. Hori bai, baina Spenceren filosofia (metafisika) eboluzionista ere bai. Eta ausaz hor arrazoi erabakior bat susma daiteke, zergatik gero, Unamunoren inguruko Bilbo liberal foralistak politikoki Arana Goiriren tesietarantz eboluzionatuko duen artean, politikoki baino gehiago filosofikoki pentsatzen duen Unamunok berak, ezingo duen «razionalki» hori egin. Alegia, nola orain laundun dion filosofia, gero oztopo izan zaion.

Kosmos osoaren eta gizadiaren batasun mistiko metafisiko batek koroatzen du bilakabide guztia nobelaren buruan (oroit hasieran aldatuturiko testu luzea). Errealitatea —Spenceren arabera— bakunetik konplexura, inorganikotik organikorara, bizitzara eta gizartera, kulturara, historiara doa goitituz eta zabalduz, geroz eta aberatsagoa, berezituago eta armonikoagoa halere beti. Materia egoera homogenoa desberezi ezezagokor batetik heterogenitate berezitu eta elkarlotura pasatzen da, eta hor unibertsoaren mugimendua abiatzen da, hasierako anabasa hura zatitan banatuz, formak ugalduz, horien arteko diferentziak handituz, espezie eta genero berriak sortuz, goenean gizakiak eta gizarte tipo ezberdinak ageriz; hauek ere, Lehen Aroko horda desberezi homogenoen gizanahastetik hasirik, taldetan banatuz, berezituaz, ugalduz, aberastuz eta indartuz elkarrekin lehian, borrokan, zibilizazio geroz eta perfektionatuagoak ekoiziz, sistema militar bortizetatik egungo gizarte industrialeraino, laster «gizaki berria», eta naturako ihardun eta borroka guztien armonia nagusituko delarik, guztiaren bake handian. Hala «errebelatzen» zaio Pachico-Unamunori Bizkaiko mendietatik unibertsoa; eta hala dakus, batez ere, «la historia, lucha perdurable de pueblos, cuyo fin tal vez inasequible, es la verdadera unidad del género humano». Eboluzio azkengabearen helmuga. Historia borroka da. Naturak berak etengabe ari duen borroka —«lucha sin tregua ni descanso»—. Baina borroka hori bakearen bila da. Horrela, bakea ez da gerraren ondorioa bakarrik; funtsean gerra bera bakea da barne-barnean. «Es una inmensidad de paz. Paz canta el mar; paz dice calladamente la tierra; paz vierte el cielo; paz brota de las luchas por la vida [kasu konzeptuari: «lucha por la vida»], suprema armonía de disonancias; paz en la guerra misma y bajo la guerra inacabable, sustentándola y coronándola. Es la guerra a la paz lo que a la eternidad el tiempo: su forma pasajera. Y en la Paz parecen identificarse la Muerte y la Vida» (321). Gerra karlisten bukaerako bakeak Aro Berria irekitzen du.

Ez dakit zergatik, XIX. mendeak historiaren azken gailurrera heldua uste zuen bere burua behin eta berriro, aurreko guztiari prehistoria modu bat iritziz. Hala da Hegelen espekulazioan, hala gero Marxen iraultzaren teorian. Hala Spenceren positibismoan. Hala izango da

oraindik Nietzscheren filosofian bertan eta gizagaindikoaren agintzarian. Hala da batez ere Comteren eskema hirukoitzean: fase teologikoa («primitibo») eta metafisikoa gainditurik (Platonengandik orain artekoa), XIX. mendeak pentsatzen zuen, berak historiaren fase zientifikoan sartu gaituela, hirugarren eta azkenbetikoan. Halatsu da Unamunoren nobelan. Gizakiaren orain arteko ibilera guztia «historia» izan da; hots, baezpadakoa, kontingentea, zoroa. Hemendik aurrera gizon-emakume razionalaren martxa zientifiko eta segurua hasten da. Gerra eta kalapita guztiak gainditurik, guztion batasunaren eta armoniaren garaia hasten da orain. Aro Industrialera helduak gara, gainditua da antzinako gizarte ez aski berezituaren Aro Militarra; honez gero Aro Berri bat iragartzen da, hor arrazek eta herriek *naturalki* elkar osatuko baitute (gizonak eta emakumeak bezala, esango du Unamunok «Espíritu de la raza vasca»), elkar aberastuz, ernalduz, «vendrán unas razas a completar a otras y completarse en ellas, y a formar en un abrazo íntimo la gran familia humana que ha de inaugurar el reinado del espíritu»¹⁹.

Horrela biolentzia eta gerra bera Euskal Herria batzeko Naturaren tresna da. Ez Euskal Herria bakarrik: gerrak Espainiako batasun gaizki egin bat kordokarazten du, diferentzia eta formen, herrien heterogenitatea bindikatuz²⁰; baina diferentziekin batera funtsean espainol guztien batasuna jartzen du agerian halaber: zentzugabekoa da holako gerra bat «entre españoles» (210); «se juntaban soldados y oficiales de un bando y de otro, a beber, a cantar y a armar timba... Españoles todos, al fin y al cabo» (254-255). «Avisábanse todos los días de uno y otro campo la hora en que había de empezar el cañoneo, y más tarde llegó a dispararse con pólvora sola, por cumplir. Eran días de laxitud, en que llegó a darse el caso de que un cabo de avanzada carlista guiara a su relevo a un batallón enemigo descarriado. Hubo que prohibir, en algún punto de la línea carlista, que fuesen los muchachos a las posiciones enemigas» (257). Peoiek berek jakin gabe, baina historiaren lan bategilea ari dira egiten gerrarekin. «No era la tal guerra más que uno de los eslabones de la vida del pueblo español, un eslabón cuya íntima trascendencia era, tal vez, tan sólo la de mantener la continuidad de su historia» (271).

Baina ezta Espainiaren batasuna bakarrik ere: Espainiak berak, batez ere *En torno al casticismo*-n azpimarratzen du hori Unamunok, Euro-

¹⁹ UNAMUNO, M. de (1974): *La raza vasca y el vascuence. En torno a la lengua española*, Madrid, 56.

²⁰ «La mal ensamblada unidad española se resquebrajaba una vez más; los hijos del Pirineo y del Ebro se revolvían contra el espíritu de la meseta castellana» (*Paz en la guerra*, 134).

parekin batu behar du, europartu. Isolamendua herrien suizidioa da²¹. Hori baita Espainia egiten ari dena: «que la miseria mental de España arranca del aislamiento en que nos puso toda una conducta cifrada en el proteccionismo inquisitorial que ahogó en su cuna la Reforma castiza e impidió la entrada a la europea; que en la intra-historia vive con la masa difusa y desdeñada el principio de honda continuidad internacional y de cosmopolitismo, el protoplasma universal humano; que sólo abriendo las ventanas a vientos europeos, empapándonos en el ambiente continental, teniendo fe en que no perderemos nuestra personalidad al hacerlo, europeizándonos para hacer España y chapuzándonos en el pueblo, regeneraremos esta estepa moral. Con el aire de fuera regenero *mi* sangre, no respirando el que exhalo».

Historia, ikuspide ezin judu-kristauago honetan (Spencer edukazio kuakeroan hazia da), munduaren batasuna egiteko Naturaren bidegintza eta bidelana besterik ez da —«historia sakratuan» bezalaxe—. Baina, bigarren, harena filosofia estriktoki eboluzionista determinista da (zientifista); historiak bere bidea nahitaezkotasun itsuz egiten du, bere barrutik halabehartuta: «las cosas son como son y no pueden ser más que como son», Pachicok dakienez (eta Unamunok bere artikuluetan mila bider errepikatu duenez). Eta, hirugarren, beharbada erabakiorragoa azken finean gure arloan, Spenceren kontzepzioa —eta Unamunorena harekin— erabat organizista da. Hots, gizartea organismo bat bezala ulertzen da; haren bizitza eta eboluzioa organismo bizidunen analogia hertsian ikusten da. Honek esanahi du gizadiaren eta historiaren biologia bat daukagula funtsean (eta ezingo gaitu harritu, esate baterako, Unamunoren gizarte eta histori filosofian arrazak inportantzia handiagoa badauka Arana Goirenean baino; eta Unamunoren arraza kontzeptuak berak garai honetan, elementu biologiko gehiago²² eta historiaren esplikazioen baliozkoagoak baditu, ene ustez, Arana Goiriren arraza kontzeptu hain eskandalosoak baino)²³. Eboluzio soziala ere ideia biologikoaren arabera ulertzen da: hau —espezieen eboluzioaren gisara— barneko eta kanpoko faktoreek determinatzen dute: barne-

²¹ Eta euskarak Euskal Herria isolatu egiten du munduan!

²² «La capacidad relativa del cráneo» berdina omen da gizon eta emekumeengan Euskal Herrian —herri basatietan («salvaje») bezalaxe!—, cfr. «Espíritu de la raza vasca», in: UNAMUNO, M. de (1974): *La raza vasca y el vascuence. En torno a la lengua española*, Madrid, 61. «En el cerebro, señores, de los pueblos salvajes y los primitivos pueblos, los centros motores están mucho más desarrollados que los directores. —El pueblo vasco es un pueblo activo, fuerza, mucha fuerza, aunque le faltan ideas, porque en nosotros las ideas se truecan en fuerza» (Ib., 75)».

²³ Unamunoren doktrina da euskaltasunaren, hau da, euskal izpirituaren edo esen-tziaren muina arrazan dagoela, ez hizkuntzan.

koak giza faktore fisiko, intelektual, emozionalak dira, «arrazaren ezau-garriak», honen «izpiritua» bereziki (Unamuno biziki interesatu da euskal arrazaren izpirituaz); kanpokoak eragin geografiko eta klimatikoak, eta arraza edo talde ezberdin elkarrentzat arrotzek bata-bestaren gain izaten dituzten influentziak, erakunde sozialen berritze suzesiboak bul-tzatuz. Dena dela, eboluzioa naturala da, esan gura baitu, berez egiten dela, ez dagoela artifizialki (Estatuaren interbentzioz edo) eginaraz edo lasterrarazterik; eta —espezie animalietan bezala—, astiro-astiro, gradual eta saihestezinki bere erritmoan higitzen dela hura. Izan ere, Spencer lamarckista da, ezin da ahaztu hori. Esan gura du, uste zuela, kode moral bat orohar (uste batzuk, kultura modu bat) belauldi ezberdinei segidan aski sendo grabatzen bazaie izpirituan, «izpiritu» hori hereditaria bilakatzen dela (arrazaren izpiritua), gero historiako peripecia guz-tien azpitik jende horren karaktere genetiko bezala iraunkor dirauena²⁴. Axaleko gorabehera itxuraz handi eta zalapartatsuen azpian, egiazko eboluzioa, barnagoan —»intra-historian», esango du Unamunok—, espezieen trasformazio antzera, oso geldo dihoa. Hori dena Spencer da. Ildo honi jarraiki, 1895ean *En torno al casticismo* argitaratu du Unamunok, Gaztelako edo Espainiako «intra-historia»ren bilaketa bat. Eta hain zuzen liburu honen bigarren argitalpeneko hitzaurrean (1902), Unamunok berak *Paz en la guerra* nobelak Euskal Herriaren «intra-historia»ren azalpena izan nahi duela, adierazten digu²⁵.

Intrahistorian herri guztiak bat dira substantzian, gizadiaren hasieran denak bat izan ziren bezala («el protoplasma universal humano»), homogenotasun amorfo hartatik aberastasun diferentziatura, elkarren arteko borrokara eta lehiara, eta berriro —gorago— sintesi aberats mila kolorezko unibertsalera bidean. Herriak, oraintxe itxi-itxiak direnak ere! (gaztelaua, adibidez)²⁶, *esentzialki* kosmopolitak dira, naturak irekitasunera eta beste herriekin harremantzera aurre-determinatuak, guz-

²⁴ Arraza nahiko izpirituala daukagu, hortaz! Bestetik, ezaugarri nahiko izpiritualak edo kulturalak uste ditugun batzuk (euskaldunen ekimen izpiritua, etab.) genetiko-arrazazkoak izango dira, ordea! (Euskara gabe ere zer axola? Horiek berdin-berdin heredatuko dira!).

²⁵ «Ya por entonces llevaba yo unos años estudiando la vida íntima de mi pueblo vasco y el alma de la aldea vascongada y la guerra carlista. Y dos años después, en 1897, publiqué mi primera novela, *Paz en la guerra*, en que dentro del marco de la última guerra civil carlista, cuyas peripecias narro, intenté mostrar algo de la intra-historia de mi pueblo».

²⁶ Aipa dezagun berriro: «¿Está todo moribundo? No, el porvenir de la sociedad española espera dentro de nuestra sociedad histórica, en la intrahistoria, en el pueblo desconocido, y no surgirá potente hasta que le despierten vientos o ventarrones del ambiente europeo»... Baina herrien barne eboluzioa ez zegoen artifizialki ibilazterik!

tiek bat egiteko eta guztion batean mundu berri bat. (Utopia honetatik utopia sozialistara jauzia ez zuen zaila).

Honek denak historiaren analisiarekin zerikusi gutxi du, fede handi bat da. Unamunoren fede handia, historian baino gehiago Spenceren-gan, nik uste; eta fedea ere baino gehiago, Unamunoren antsia bizi pertsonala. Azpi-azpian beharbada Guztiaren Batasunaren eta Bake Handiaren nostalgia erlijioso, mistiko bat besterik ez («Hen kai Pan», Bat eta Dena), Unamunoren pelegrinazio ideologiko guztietan konstantea. Pertsonentzako hala munduarentzako, gizadiko historia bezala arimako historia intimoa ulertzeko berdin balio duen eskema. Azkenean Pachicok ere, prozesu berdinean, hasierako erlijiositate homogeneo desberezi dogmatikotik krisira, ideien heterogenitate eta borrokara, pasa eta gero, bake handi aberatsa lortzen dizu berriro bere baitan: «*Por fin la paz interior se había hecho en él, y disueltos los contrarios ejércitos de sus ideas, vivían las de uno y otro en su conciencia, como hermanas, trabajando en común, en la paz de la por completo aquietada mente*» (272).

Ongi ohartuz, historiaren ikusmolde handioso honek azkenean historia anulatu egiten duela, ikusten da. Historiarekin, tragedia historikoa ere. Gorabehera historikoak axalekoak dira. Gerrak eta guduak eta Foruen ezabaketa gorabehera, egiazko errealitatea barnagoan dago, ukitugabe, iraunkor («euskal arima»). Filosofia kontsolagarria da hori Euskal Herri derrotatuarentzat, edo XIX. mendean zehar euskaldunak behin eta berriro bi frontetan banatu eta bata-besteari armetan erasotzera eta bien hondamenera eraman dituzten konfliktoak ahazgarritzat jo nahi dituen gazte bilbotar postliberalarentzat. Bakarrik, kontsolamendua historiaren esanahia minimizatuz bilatzeak, arrisku ebidenteak ditu. (Zer egin nahi da orduan historian? Zer lortu?). Dena den, arriskuak arrisku, oraingoz oso probetxuzkoa izan zaio Unamunori soluzio hau, hurrengo zenbakietan ikusten jarraituko dugunez.

3

Bakea eta batasuna da historiaren jomuga: baina zein bake eta batasun?

Spenceren filosofian gizartea (eta historia) organismo bizidunaren analogian interpretatzen bada ere, badago diferentzia funtsezko bat. Hori bai, osotasuna batasun hertsia bat da beti gizartean ere (organikoa). Baina organismo bizidunean (animalia batean edo nire gorputzean) atalak osoaren menpetasun guztizkoan bizi dira, ez dute bizitza propioirik; atal edo menbru bakoitza —eskua, begia— eta gorputz atalen

masa guztia, organo zentral batetik manatuta bizi da eta ari da —garunetik—, harengandik dago atalaren bititze ala ez bititzea, aritze ala ez aritzea, ez du inolako autonomiarik. Gizartean, aldiz, horrelako zerbait gizarte primitiboetan gertatzen da, Antzinatean, horda primitiboaren anabasa gaititu eta gizarte organiko berezituaren lehen forman, Aro Militarrean: botere zentral eta interbentzionista batek orduan gizarte osoa, maiz arraza eta herri diferenteak, bere menpe lotzen ditu eta goitik zorrozki gobernatzen du «organismo» dena, gizartean buru edo zentru hark agindua egiten da eta ez da besterik egiten²⁷. Gure aroan, ostera, gizarte moderno industrialean (zientziarekin, etab., «indibiduo» modernoarekin), heterogenitate aberatsa nagusi jada, ez du osotasunak atalen bititza eragiten eta agintzen, alderantziz baizik, atalen bititza autonomoak egiten du osoarena; honez gero atalak ez dira «menpekoak», ez dago osotasunaren bititza aktiboki zuzentzen duen erdigunerik, atalen bititza eta iharduna ez dago haren ekitetik zintzilik. Hitz batean, gizarte modernoa organismo berezitu eta deszentralizatu da! (Boterea atalen errepresentatiboa baizik ez da, etab.). Spencer laissez-faire erabatekoaren liberala da. Estatu ingelesa garai hartan hartzen hasia zen gizartean interbenitzeko arau guztien zeharo kontrarioa izan da. Komertzioari, lanari, merkatuari, utzi egin behar zaie beren kasa libre jokatzeko. Liberalismoaren eginkizuna, lehenago erregeen boterea murriztea izan zen bezala, Parlamentuen boterea minimo bateraino murriztea da orain. Gizarteak lortua duen produkzio eta kultura mailan, izan ere, bere buruaren nagusi bakarra bera izan daiteke jada²⁸. Ahalik eta gizartearen autonomia gehiena, ahalik eta Estatu gutxiena.

Honek berdintsu balio du Elizarentzat eta elijioarentzat, edo erakunde eliztarrentzat. Beren historia gizarte zibilaren parekoa da: antzinateko erakunde teokratiko eta dogmatikoetatik hasi, Luterok ekarri zuen askatasun erlijioso eta erakunde eliztarren forma demokratikoeta-

²⁷ Horrelatsu egin bide du Gaztela nekazari eta militarrek (ez, esaterako, Katalunia merkatari eta kultoak) Espainiaren batasuna: «en la crisis de la pubertad nacional las funciones de nutrición predominaban sobre las de relación» («La casta histórica de Castilla», *En torno al casticismo*).

²⁸ Esaten ari naizenez, Unamunok askotan Spenceren ideien aplikazio kasik mekaniko eta zentzugabeko bat egin nahi izaten dio errealtate espainolari. Hala interpretatzen du «La Gloriosa» («tan castiza..., tan hondamente castiza») eta «Dios, Patria y Rey» lelopean egindako albaramenduan berak «aqueel empuje profundamente laico, democrático y popular, aquella protesta contra todo mandarinato, todo intelectualismo, todo jacobinismo y todo charlamentalismo, contra todo aristocratismo y centralización unificadora. Fue un movimiento más europeo que español, un irrumpir de lo subconciente en la conciencia, de lo intrahistórico en la historia» ikusten dizu («Sobre el marasmo actual de España», *En torno al casticismo*). Ulertzen da, beraz, karlismo «intraistorikoaren» balio positibo sakona Unamunorentzat.

tik pasa, eta honez gero sineskai eta kultu erlijiosoak (edo herriaren sineskeriak eta superstizioak) gainditzeko paradan gaude, haien lekuan izpirituen nagusi bakarra arau moral zindoen praktika publikoa izango delarik gizarte berrian.

Esan bezala, hirugarren eta azkeneko gizarte tipoa abian da eta laster ezarri izango da, industrialismoaren oraingoa gainditurik. Aro honek militarismoaren azken hondarrak xahutuko ditu (gerrak); gizarteak banakoen kooperazio libreak oinarrituko dira (deszentralizatuak), alderdi politikoak desagertu egingo dira (kooperazioa izango baita bizitza publikoa eratzen duen printzipioa, eta ez elkarren arteko lehia); «herrien federazio baketsu» baten eran antolatuko da mundua.

Filosofia edo utopia sozial hau (funtsean metafisika bat besterik ez dela, berritortuko dut), Unamunok nahikoa erraz Pi y Margallen ideia politikoekin uztartu ahal izan du. Unamuno (filosofizale asko bezala, bestalde) nekez identifikatzen da inoiz osotoro formula politikotekin, eta Pi y Margallen federalismoarekin ere ez dakit noraino identifikatu den esanahi politiko zehatzean. Baina politikoki haren hurbilekoa dirudi (halatsu aipatzen du haren hainbat pasarte) eta, nolana ere, bere pentsamendua antizentralista garbia da, antijakobinoa. Estatu modernoan zentralista horretan birreraikitzeke politika jakobinoa, gizarte antinaturalki (artifizialki) manipulatu nahi izatea begitantzen zaio (astakeria bat izateaz gain, fruiturik ezin ekar lezakeena, Unamunoren ustean); historia ideien arabera antolatu gura izatea; hau da, historia (kanpotik) bortxatzea, ahaztuz sakoneko intrahistoria, naturaren eta bilakabide historikoaren determinismoa, etab., presupostu zientifiko oinarritzkoenak. Astronomiak gobernatzen dituela zeruko izarren mugimenduak, uste izatea bezalatsu; idealismo txar bat. Zentralismoa antipolitikoa, antihistorikoa eta antizientifikoa da, antinaturala hitz batean. «Siempre la costumbre ha precedido y determinado a la ley, menos hoy, que en vez de sacar las leyes del espíritu del pueblo [kasu kontzeptutxo honen presentziari!], las sacan del espíritu de los libros. Lllaman utopía a convertir las leyes de la vida en leyes de la sociedad, y llaman sensato doblegar los pueblos a sistemas preconcebidos»²⁹. Unamunok, erdeinutsu asko, «teorías francesas vestidas a la española» eta «despotismo nuevo de la uniformidad absoluta»tzat joko ditu zentralismoa ideia jakobinoak. Aitzitik: «El espíritu del fuero es el espíritu de todo pueblo no contaminado con enredos especulativos, es la inspiración de la naturaleza» [kasu, berriro, ideiaon azpiko filosofiari!]³⁰.

²⁹ «Espíritu de la raza vasca» (*loc. cit.*, 77-78).

³⁰ *Ib.* (77).

Alegia, azken batasunaren ideia ez da bazter utzi. Baina batasun hori, diferentzia ziurtatu eta gero —harekin eta haren hurrengo, ez haren aurka— lortzekoa da: «la integración viene después de la diferenciación; la división del trabajo es anterior a la asociación cooperativa», dio Unamunok «El espíritu de la raza»n. Diferentzia da orain batasunaren oinarria (batasun inposatuaren Aro Militar primitiboan ez bezala hain zuzen)³¹. Azken batasun handiak *orain* diferentziak eskatzen ditu bere oinarri eta baldintza gisa. Konkretuki, Euskal Herriaren berezitasuna, autogobernua eskatzen du.

Unamuno mutil gaztea foruzale amorratua izan bazen, orain ere foralista (edo, hobe, Euskal Herriaren autogobernuzale) jarraitzen du. «Pedid lo que tuvimos, no sólo porque lo tuvimos, sino porque aunque nunca lo hubiéramos tenido, deberíamos tenerlo», aldarrikatzen du³². Bakarrik, berak hala uste du, berea orain ez da sentimentuaren foralismo maskal bat, arrazoiarena baizik. Ez nostalgia historikoak, ez Txaho eta konpainiaren legendek, ez iraganak, eta gutxiago iragan erromantikoak, eusten dio orain bere foruzaletasunari, filosofiak baizik: progresoaren burdinezko legearen ezagutzak. Hor dago aldea. «Aquí todos somos fueristas por sentimiento, por raciocinio lo son pocos»³³. Ondorioz, foralismo bat iraganera itzuli zalea begitantzen zaio; bestea (be-

³¹ Diferentzian batasunaren eredutzat Euskal Herria bera ikusten du Unamunok: euskaldunok «nunca, que sepa, hemos formado una unidad política. La supuesta Confederación Vasca es un mito: desde los más remotos tiempos estábamos divididos en austrigones, várdulos, caristios y vascones (...). Y aún dentro de nuestro Señorío, república era cada pueblo; aún veréis en el frontispicio de las Casas Consistoriales de las anteiglesias vecinas, república de Begoña, república de Abando. No era un pueblo más que el otro, nunca el pez grande pudo devorar al chico» (*ib.*, 79). Baina, erne!, ez diezagula Unamunok iruzur txiki bat egin, filosofia baten hitzak haren pentsamenduaren aurka erabiliz. Spenceren historiaren filosofian, batasun militar autoritariaren ondoko, hura gaindituzko diferentziazioa da positiboa (Aro industrialekoa, Aro berria fundamenta dezakeenekoa), ez antzinateko euskal tribuena edo errepublika premoderno (herriska) laborariena. Unamunoren zehaztasun filosofikoaz askotan ez da egoten gehiegi fidatzerik.

³² *ib.*, 79. «Fué el espíritu antiguo despotismo del hombre [tiranoa edo erregea]; es el moderno despotismo de la idea; será el venidero reinado de la voluntad autónoma. —No os hagáis ilusiones; nuestro espíritu de raza repugna ese despotismo viejo y carcomido a que quieren volvernos algunos, cuando nunca nos hemos dejado dominar por él; tan fatales fueron ayer los reyes como las leyes hoy; pero a nuestro espíritu de raza repugna también este despotismo nuevo que algunos llaman liberal—. No nos deben tiranizar ni prejuicios de monarcas, enamorados del Sacro Imperio y de la uniformidad de la muerte, ni las teorías de gentes enamoradas también de la uniformidad absoluta, que se aprende en los libros de la filosofía del absoluto y en las inspiraciones del doctrinarismo. —Nosotros nos hemos gobernado, no nos pudo gobernar un tirano, no lo podrán una recua de tiranuelos» (78-79).

³³ *ib.*

rea) progresista³⁴. Bat bere gaztetakoa da, Foruen abolizioari jarraitu zaion sentimentu minduarena; Sagarmínagarena, laburki esateko. Unamunok orain nahi duena, foralismo erradikal bat, baina foralismo kritiko (batez ere legenda historikoen «erromantizismoarekin» kritiko), moderno, laiko, progresista bat da. Foralismo berri bat. Ez bere baitan itxia, «regionalismo exclusivista y ciego a toda visión amplia, a todo lo que el horizonte natural traspase», *Paz en la guerra*-ko azken gogoetetan kritikatzan denez; baizik, Iparragirreraren kantak dioen bezala (diferentziak ez daude, dirudienez, edukinetan, arrazoietan baino; ez politikan, kulturean), mundura zabaldua. Munduko filosofia handien «kontzientzia duena».

Eta gogoeta horietan, laster euskal «nazionalismora» eramango duen, bilbotarren artean oraindik aspirazio inkontziente lanbrotsu bat besterik ez den mugimenduaren, meditazio filosofikoa baino esango nuke kanta epikoago hauxe dauka Unamunok:

«Empiézase en el ambiente (...) a cobrar conciencia del viejo lema «Dios y Fueros», al que sirvió de tapujo en gran parte el de «Dios, Patria y Rey». Siéntense las generales corrientes étnicas que sacuden a toda Europa. Por debajo de las nacionalidades políticas, simbolizadas en banderas y glorificadas en triunfos militares, obra el impulso al disloque de ellas en razas y pueblos más de antiguo fundidos, antehistóricos, encarnados en lenguajes diversos y vivificados en la íntima comunión privativa de costumbres cotidianas peculiares a cada uno; impulso que la presión de aquéllas encauza y endereza. Es el inconsciente anhelo a la patria espiritual, la desligada del terruño; es la atracción que, sintiendo los pueblos hacia la vida silenciosa de debajo del tumulto pasajero de la historia, los empuja a su redistribución natural, según originarias diferencias y analogías, a la redistribución que permita el futuro libre de agrupamiento de todos ellos en la gran familia humana; es, a la vez, la vieja lucha de razas, fuente de la civilización. Tales corrientes étnicas de debajo de la historia son las que, aunándose al proceso de las grandes nacionalidades históricas, hijas de la guerra y de ella sustentadoras, las impele al concierto de que haya de surgir la humanidad pacífica. Por dentro de los grandes organismos históricos palpita su carne, luchando por diferenciarse según la varia distribución de sus elementos originarios; en los suelos nacionales, hipotecas de los tenedores de las deudas públicas, alienta la

³⁴ «Hoy dos partidos diversos luchan por lo perdido; el uno quiere volvernos a la cuna, tornarnos a la barbarie de que salimos; el otro, llevarnos adelante, educarnos en la civilización; aquél trata en nuestra lucha con el espíritu moderno de volvernos al viejo; éste trata de acomodarnos a él; yo creo que debemos buscar el espíritu del porvenir» (*ib.*).

vieja alma de las antiguas tribus errantes, que se asentaron en un tiempo en campos de propiedad común. Los pueblos, que forman las naciones, empujan a éstas a integrarse, disolviéndose en el pueblo.

Mas se va a tal finalidad cerrados los ojos a ella, en egoísta impulso de ciegos exclusivismos. Juan José y sus compañeros de aspiraciones entonan el solemne himno al árbol de Guernica, símbolo vivo de la genuina personalidad del pueblo vasco; cantan en vascuence, sin entenderla apenas, aquella estrofa que dice:

*Eman ta zabal zazu
munduan frutua,
adoratzen zaitugu
arbolà santua!*

En la invocación a que dé y extienda su fruto por el mundo todo no ven los que la cantan la genial intuición del bardo errante, que recorriera extraños pueblos para llevarles el ensalmo de la canción de libertad, en música a todos comprensible, aunque encarnada en vieja lengua desconocida de ellos».

Mereziko luke iruzkin xehe-xehe bat, esaldiz esaldi, testu honek, guk nazioaren teoria esan ohi duguna (herriena, testu honetako berbetan), Unamunok doi-doi nola ulertzen zuen, ongi atzemateko. Irakurketa arretatsu bat zor zaio gutxienez: esana daukagunarekin nahikoa ulertu ahal izango da apika. Testuak nazionalitateen (herrien) XIX. mendeko historia europarreko mugimendu ezagunak islatzen ditu. Naturaren indarraren mugimenduak dira horiek, hemengo ikuspidean. Europa bi geruzak bezala osatzen baitu: azpi edo barne naturala (arrazak eta herriak, intrahistoria) eta ondope horren gainean, superfizie historikoan, «nazionalitate politikoak» (Estatuak, Inperioak), monarkiek bortxakeriaz eta gerraz zentru baten inguruan bildu eta estekatuak³⁵. Progresoaren legean, horiek beharrezkoak izan dira iraganean, herriak zibilizatzeko. Beren momentua eduki dute historiaren garapidean, beren eginkizuna bete dute - ideia eta dogma erlijioso batzuek beren mo-

³⁵ Ohartarazi beharrekoa da berez intrahistoria eta historia hertsiki-hertsiki ez direla elkarren ukoa, ik. MARAVALL, J. A., «De la intrahistoria a la historia», in: GÓMEZ MOLLEDA, D. (arg.) (1986): *Volumen-Homenaje a Miguel de Unamuno*, Casa-Museo Unamuno, Salamanca, 175-230. ALVAREZ GÓMEZ, M., «Planteamiento ontológico del primer Unamuno», in: GÓMEZ MOLLEDA, D. (arg.), *loc. cit.*, 523-540. Nolanahi dela ere, historia politikoan erraz gertatzen dira elkarren kontrarioak, eta de fakto garai honetan behintzat biak elkarri kontrajarriz erabiltzen ditu ia beti Unamunok. Are historiaren aurka, intrahistoriaren alde, borrokatu behar dugula, aldarrikatzen du: «La historia, la condenada historia, nos oprime y ahoga, impidiendo que nos bañemos en las aguas vivas de la humanidad entera, la que palpita en hechos permanentes bajo los mudables sucesos históricos», cfr. «La crisis del patriotismo», in: *Obras Completas, loc. cit.*, Bol. I, 978.

mentua eta beren funtzioa eduki duten bezala iraganean³⁶. Orain forma berriak, deszentralizatuak, aurkitzea tokatzen zaie. Hortaz, menpean lotuak egotea tokatu zaien herriei berriro mugitzea dagokie, bai hauen eta bai haien (bien!) artean «gizadi baketsuaren» Aro Berria abiatzeko. Egitekoa orain ez da «nazionalitate historikoak» (Estatuak) desegitea, «birregitea» edo gainditzea baizik.

Hori da historiaren martxa. Berak egiten duena, bere progresoaren legeak edo Naturak aginduta egiten dena. Baina historia hori egiten ari diren gizon-emakumeek ez dakite, hori egiten ari direna. Beraiek hori nahi gabe doaz («begiak itxita»), jomuga horretara. Are, beren egoismoa da, egoismoaren gaindipena izango den jomuga horretara, itsuitsu bultzatzen dituen, historiaren burdinezko determinismoaz. Historia beren «izpiritu zaharraz», beren *instinto*ez, baliatzen da tresna gisa³⁷. Gizakiaren instinto irrazionalak, horrela, historiarentzako, Ama Natura jakitunari esker, bere adimena bezala dira. Ez ideiek, ideien azpiko sentimentuek baizik, gidatzen gaituzte —ez kontzientziak, sakoneko Naturak baizik—. Sentimentuen bidez Naturak gidatzen gaitu, ideiek gidatzen gaituztela uste dugun bitartean³⁸.

4

Badago artikulu sonatu bat, *Paz en la guerra*-ko planteamenduen osagarria iruditzen baitzait, «La crisis del patriotismo», 1896an Bartzelonako *Ciencia Social* aldizkari anarkistan argitaratua, ikusten ari garen Unamunoren kontzeptuak herri edo eskualdeaz, Estatuaz, regionalismo eta nazionalismoaz, etab., zuzenean tratatzen dituen, txit argigarria gure gaiarentzat, hemen ja klase borrokaren perspektiba gehitua dagoen arren, autorearen fase sozialistakoa izaki. Unamunok, izan ere, kontzeptu eta ikuspide hagitik interesgarriak landu ditu garai honetan «abertzaletasun» ezkertiar baten ildoan, gerraostean ezker abertzaleak jorratuko dituen bideak ia ehun urte lehenago entseiatuz. (Pierre Vilar

³⁶ Hala argudiatzen du Pachico-Unamunok: «(...) que los dogmas habían sido verdaderos en un tiempo, verdaderos puesto que se produjeron, pero que hoy no son ya ni verdaderos ni falsos, por haber perdido toda sustancia y todo sentido» (82).

³⁷ «Tirábanles [soldadu karlistei] con fuerza los prístinos instintos de errante vida predatoria; instintos que resurgían potentes en ellos desde el indestructible poso del alma en que llevaban el alma de las almas de sus más remotos abuelos».

³⁸ «Espíritu de la raza vasca»n honela adierazten da: «El sentimiento es el instinto en el hombre, la acción lenta y gradual del medio en que vivimos, que produce esos movimientos sin idea, impulsos inconcientes que impelen, arrastran y empujan las ideas que nosotros, por ilusión de la conciencia, creemos son nuestras directoras».

historilari marxista zorrotzari ez zaio pasa ohartu gabe «cette vision éclairante —à laquelle, malheureusement, Unamuno a trop vite renoncé en se castillanisant»—³⁹. R. Perez de la Dehesaren esanean, Unamunok sozialismo espainola behin eta berriro kritikatu bide du, berak arazo regionala deitzen zuenarentzat ulerpenik ez izateagatik. «Su entusiasta adhesión al antibizcainismo de los socialistas vascos —komentatzen du autore horrek— fue compatible con la defensa de un regionalismo no exclusivista. Creía ciertamente que la Agrupación de Bilbao no se había preocupado lo suficiente de adaptarse a las circunstancias locales. Años más tarde, aún dejaba abierta la pregunta: "¿No cabría traducir el socialismo al espíritu vasco?"»⁴⁰.

Erazena Unamunoren hitzak aldatzea izango dugu, komentario handi gabe. Hasteko, guk, orain gertatzen ari dela, esan ohi dugun fenomeno, Unamunok ehun urte lehenago erreparatu zuela, ikusiko du irakurleak.

«Hace ya tiempo que viene cumpliéndose en los sentimientos sociales, por lo que a la patria respecta, un curioso fenómeno que cabe llamar de polarización, consistente en que van creciendo paralelos el sentimiento cosmopolita de humanidad y el apego a la pequeña región nativa. El regionalismo se acrecienta de par con el cosmopolitismo, a expensas del sentimiento patriótico nacional [Estatuarena], mal forjado por la literatura erudita y la historia externa. A medida que se ensancha la gran Patria humana se reconcentra lo que aquí se llama patria chica o de campanario. Parece como que se busca en el apego al terruño natal un contrapeso a la difusión excesiva del sentimiento de solidaridad humana.

³⁹ VILAR, P. (1983): «Culture, Nation, Histoire», in: *RIEV - Revista Internacional de Estudios Vascos* 28, 255.

⁴⁰ PÉREZ DE LA DEHESA, R., aip. lib., 68-69. 1897ko irailean Unamunok artikulu bat publikatu du *Sozialistische Monatshefte* (9, 475 eta hurr.) Berlingo aldizkari sozialistan Espainiako sozialismoaren berri emanez. Bertan sozialismo espainolaren hainbat kritika gogor egiten da, haren inkultura eta sektarismoarena batikbat, eta partikulari Bilboko *La lucha de clases* aldizkariarena eta Madrilen egoitza duen Komite Nazionalarena, honen zentralismoagatik eta erregionalismo ororekiko etsaitasunitsuagatik: horregatik, dio Unamunok, Bartzelonan langileak anarkistak edo errepublikanoak dira, sozialismoak apenas du jarraitzailerik, Espainiako hiri biztanletsuena eta industrialena izan arren. Artikulu horretan, kuriosoa da, sozialismoari ez zaio «karaktere espainolarentzat» oso egokia irizten; aitzitik, Bilboko sozialismoan «euskal arrazaren aiurri serio eta egonkorren» eragin positiboa destakutzen da, euskal arrazaren konplexurik gabeko apologia honekin: «In Bilbao, das heute die Hochburg des Sozialismus in Spanien ist, kommt noch der Einfluss hinzu, welchen der ernste und beständige Charakter der baskischen Rasse ausübt. Diese Rasse ist sehr intelligent, und wenn sie sich auch schwer entschliesst, für neue Ideale sich zu begeistern, so hält sie doch hartnäckig und mit ganzer Hingabe an ihnen fest, sobald sie sie erst erfasst hat».

Este fenómeno significa desde luego escisión polarizada entre el elemento sensitivo y el intelectual, entre el concreto y el abstracto. Se concentra la *intuición* sensible de patria a medida que se abstrae el *concepto* de ella, lo cual quiere decir que no están en perfecta penetración y armonía. Y no lo están seguramente merced a la presión coercitiva y bárbara que se ha empeñado en casarlas en la historia según intereses de clase. Y esta escisión de los elementos constitutivos del patriotismo se cumple a expensas de las patrias nacionales [Estatatu-nazionalak], oficiales, las de bandera, y se cumple para bien, por ser el necesario antecedente de una integración futura, en que volverán a concertarse y fecundarse el elemento sensible e intuitivo y el ideal y de concepto. Es un deber esperar que un día, rota toda presión impositiva y autoritaria, concuerden las patrias chicas todas en la gran Patria humana, la Humanidad misma, asiento del amor fraternal, como nuestras patrias de bandera lo son de odios de guerra y competencia»⁴¹.

Hona hemen zer derizkion Estatu-nazioaren abertzaletasunaz, honez gero ezagunak egingo zaizkigun kontzeptuetan: «Es una de las concepciones más erróneas la de estimar como los más legítimos productos históricos las grandes nacionalidades, bajo un rey y una bandera. Debajo de esa historia de sucesos fugaces, historia bullanguera, hay otra profunda historia de hechos permanentes, historia silenciosa, la de los pobres labriegos que un día y otro, sin descanso, se levantan antes que el sol a labrar sus tierras y un día y otro son víctimas de las exacciones autoritarias. Se les saquea el fruto de su trabajo y se les lleva los hijos a matar a quienes ningún daño les han hecho, ni en nada les dificultan su perfeccionamiento. Los cuatro bullosos que meten ruido en la historia de los sucesos no dejan oír el silencio de la historia de los hechos»⁴².

Bi aberri dago, beraz: intuizio edo pertzepziokoa eta kontzeptukoa (konkretua eta abstraktua, bizitza eta esperientziakoa eta banderakoa, naturala eta ofiziala), eta bi abertzaletasun dago hein berean. Bi aberri eta abertzaletasun hauen garapidea historian eta bion gaindipena laster honela azaltzen dizkigu orain: 1) Lehen fasean —honek ez du derrigor iraganekoa izan behar, oraintxe ere ematen baita— laborariaren aberria eta abertzaletasuna dago (laborari honentzat Unamunok «capi-

⁴¹ «La crisis del patriotismo», *loc. cit.*, 979.

⁴² *Ib.*, 981. «Hecho» versus «suceso» historia eta subhistoriaren oposizioaren gisakoa da. Pasarte honetan horren esanahia hobeto ikusten da: «Podrá ser estrecho, pobre, raquítico, el concepto de patria que tenga el aldeano que nunca ha visto más allá del horizonte de su aldea, pero es, sin duda alguna, un concepto profundamente histórico, un *hecho* histórico, no un *suceso* más o menos durable» (*Ib.*, 981).

talista obrero» kontzeptu bitxia darabil, lurraren eta lanabesen jabea bera dela adierazteko): «El apego al rincón natal, al valle o llano que nos vió nacer, al terruño en que sudaron nuestros padres y a la aldea en que viven los camaradas de nuestra infancia, es el sentimiento de aquel que labra su propia tierra, del capitalista obrero, del que produce para consumir sobre todo, puesta en el consumo la intención casi siempre»⁴³. Honek bere lurrari atxekimendua dio, ez maitasuna: lurrari lotuegia dago, haren katibuegi, maitatzeko; baina harekin bat egiten du, bategite honek bere izpiritua eta erlijiositatea (psikologia) osoki moldatzen duelarik. 2) Bigarren aberria ez da atxekimendu naturalarena, gutxiago maitasunarena, interes ekonomikoena baizik. Unamunok honi buruz bakarrik erabiltzen du nazionalismo terminoa (eta patriotismo ere, oker ez banago): «El nacionalismo, el patriotismo de las grandes agrupaciones históricas, cuando no es hijo de la fantasía literaria de los grandes centros urbanos, suele ser producto impuesto a la larga por la cultura coercitiva de los grandes terratenientes, de los *landlords*, de los señores feudales, de los explotadores de los latifundios». Patriotismo edo nazionalismo hau inkarnatzen duena ez da inola ere karlista, edo karlistakumea, liberal petoa baizik. *Paz en la guerra*-n liberal bilbotarraren prototipoa den Don Juan Arana da hau, nobelaren azken aldera Unamunok sarkastikoki marraztu duenez. «Antes de acabarse del todo la guerra, y aprovechando sus efectos, había comprado don Juan tierras, para hacerse propietario de campo, su sueño de oro. Poseer tierra era para él como ejecutoria de nobleza y consagración de su fortuna. Le llamarían «señor amo»; dispondría de votos en las elecciones; ponderaría la llaneza con que se trata en su país al rentero»⁴⁴. Cuando le llevarsen, por Santo Tomás, las rentas con el regalo, veríase en su conciencia, ilustrada por Bastiat, cual heredero de los que primero desbastaron las intrincadas selvas y las desenmarañaron, desecaron los pantanos y roturaron los yermos; y ¿por qué no cual heredero también del Sol?»⁴⁵. Al encontrarse dueño de parcelas del suelo patrio, sintió reavivársele en

⁴³ *Paz en la guerra*-n horrela definitzen dira ekonomikoki baserritarrak: «Tampoco se había roto para ellos el primitivo nexo directo entre la producción y el consumo...» (98).

⁴⁴ Lehenago, nekazarien izpituaren deskribapenean, hala zigun adierazia: «Dependían de su tierra y de su brazo, sin más mediador entre aquella y éste que el amo, cuyo derecho de propiedad acataban sencillamente, cual un misterio más, tan natural como los sucesos todos diarios, a él sometidos como al yugo sus bueyes, borrada en su conciencia colectiva la memoria del arranque de la historia, cuando nacieron gemelas la esclavitud y la propiedad [Rousseau], como estaba borrada en cada uno de ellos la del momento primero en que abriera llorando su pecho al aire de la vida» (98-99).

⁴⁵ Alusio bat agian Txahoren «euskaldunaren» etimologiari Eguzkitik eta «euzkel-dun» hobetsi zuten «bizkaitarrei»?

el pecho el patriotismo: corroboráronse los sentimientos conservadores y se le artifició la fe de niño y el respeto a la religión de sus mayores, empezando a oír misa diaria: ingresando en una congregación piadosa, y haciendo la vista gorda a que su hija comprara la bula, avergonzado del juramento que de no comprarla hiciera a raíz del bombardeo. Probaba además su liberalismo acudiendo el dos de mayo, con su vieja gorrita de escarapela, guardada como reliquia, a la procesión cívica» (309-310)⁴⁶. Testu honek erakusten duena, lehenik, Unamunoren herra da Bilboko liberalismoari⁴⁷; baina, bigarren, berak, oso oker ez banago, Arana Goiriren bizkaitarrismo edo nazionalismoa Bilboko liberal hauen jarraipentzat edo⁴⁸ zeukala, inola ere ez landerriko karlisten jarraipentzat⁴⁹.

⁴⁶ «La clase que creó Mendizábal al pretender que dejase de ser España un convento-cuartel» derizkio klase lur erosizale horri beste leku batean (105); eta nobelak aipatzen duen proklama baten arabera, laborarien odol-zupatzaille horiek dira «los mismos que les prestaban el dinero al treinta por ciento, los que les dejaron sin montes, sin dehesas, sin hornos y hasta sin fraguas; los que se hicieron ricos comprando con cuatro cuartos y mil picardias todos los predios de la riqueza común» (118). Ik. Gambelu karlista (karlo-anarkista)ren marmar «sozialistak» 84 orrialdean adibidez. Ezaguna da geroago karlismoaren «funtsezko sozialismoa» (edo anarkismoa) Unamunoren leloetako bat izango dela. «En el fondo del carlismo vascongado hubo siempre un soplo socialista», cfr. «Alma vasca», loc. cit., 85. Maiz adierazi du, karlismoa desamortizazioaren aurka sorturiko mugimendua izan zela, cfr. PÉREZ DE LA DEHESA, R., aip. lib., 132-137.

⁴⁷ Elkartezintasun hori sinbolizatzen du nobelan don Juan liberalaren debekuak bere semeari Pachico-Unamunorekin hitzegiteko (93). Baina Don Juan, Bilboko liberal prototipikoa, pertsonaia gisa ere nahiko negatibo aurkeztua dago: insolidaria beste setiatuekin (irina ezkutuan gordetzen du), etab.

⁴⁸ «Jarraipentzat edo» diot, Unamunoren oposizio nagusien koordenadetan (hiria/landa, laboraria/merkataria, natura/historia), karlismoa garbi baitago, landatar/laboraria eta naturala dela; bizkaitarrismoa, aldiz, ez dut aurkitzen garbi kokatua inon daukanik garai honetan. (Geroago bai —Errepublikara garaian batikbat— landatarra edo probintzianoa iritziko dio erdeinu guztiz; baina ordurako landatarrak esanahi negatiboa hartu du Unamunoren pentsamenduan, eta hiria da polo positibo dirdaitsua, nobela garai honetako ehundik ehun alderantziz).

⁴⁹ Karlismoaren ondareak gutxienez lau zati duela, ematen du nobelan (310-313), zuzen igarri badiot: 1) «la aspiración a una política íntegra y exclusivamente católica» (integristak, antza); 2) herrietan «egoerari egokituak» bizi direnak; 3) «el regionalismo exclusivista y ciego a toda visión amplia», nor izan daitekeen hobeto espezifikatzen ez dena, Bilboko bizkaitarrismoa izan behar duen itxurarik ez duena halere (Santa Kruztiar tankerakoren batzuk? Novia Salcedoren «hizkuntz filosofiakoak»?); eta 4) regionalismo ireki eta bihotz-zabala, hau da, Unamuno bera eta, berak baino kontzientzia zohardi gutxiexagoz, Ignacioren laguna izandako Juan José eta besteren batzuk, hauek karlistak, baina bilbotarrak (312-313), Ignacio «arima ederra» ere karlista zen bezala, baina hirikoa —hirikoa, baina sustrai hurbilak gurasoen landerrian dauzkana, Unamunok bezalaxe—. Oso posible da, Unamunoren berezketa hauek joera edo posibilitate kultural ezberdinei gehiago soegitea, talde politikoei baino. 1905ean («La crisis actual del

Beste gabe ulertzen da orain, bi regionalismo dagoela. Baina, kasu!, Unamunok egiten duen analisiaren eskema ongi ulertzeko, berezi egin behar da: bi regionalismo dago, eta nazionalismo bat —hirugarren— bion gainean. Kontua da regionalismo horiek zein erlaziotan dauden nazionalismoarekiko. Has gaitezen regionalismoekin: «Hay dos regionalismos: el de esos propietarios que luchan contra los efectos del libre cambio y el de los que, llevados por éste, buscan por el camino de la diferenciación la integración suprema. Hay un regionalismo retrógrado, proteccionista, del terruño, el mezquino y pobre que forma juntas de defensa para evitar el traslado de una capitania general⁵⁰, el que pide cruceros, guarniciones, limosna de la que mancha y empobrece, y hay un regionalismo que pide que se deje a cada pueblo desarrollarse según él es. El uno, atizando los odios entre las regiones sirve a los que las explotan, el otro pide la separación de los elementos antitéticos violentamente unidos para que se comprendan y se unan al cabo, en coordinación sana y libre, no en subordinación maldita y autoritaria»⁵¹.

Alabaina, «nazioaren» [Estatuaren] barruan ematen dira regioak eta bi regionalismoak, horietako bat Estatu-nazio haren gaindipen bila ari baita eta bestea haren defentsa erreazionarian. Horrela funtsezko datua nazioa/nazionalismoa da (Estatu-nazionalismoa) eta harekin daukagun, edo hark gurekin daukan, borroka; hots, Estatuon arotik hurrengo aro historikora pasatzekoa, aipatu polariazioan iragartzen hasia dena. Une horretan Estatuak nola erreazionatzen duen bere burua fanatismo patriotikoz defendatuz, hau da, nortasunari eta burujabetasunari eutsi nahi dioten regionalismoen aurka propaganda sutuz, jendoldeen gorrotoa piztuz, kupida gabe erasoz, *Paz en la guerra*-n agertua zuen⁵². Orain, Kubako gerra dela-eta, «la prensa de la mentira»k xaxaturiko «patriotería hipócrita»z mintzo da⁵³, horrekin bat ez datozen ezer arrazoizko esatea «hasta criminal» omen baita, eta hori dena

patriotismo español») bi karlismo bakarrik berezten ditu: intrahistoriko herritarra («con su fondo socialista y federal y hasta anárquico»), eta Mella eta «El Correo Español»ena, «ese tumor escolástico, esa miseria de bachilleres, canónigos, curas y barberos ergotistas y raciocinadores» (zalantza gabe nobelako lehen talde bera).

⁵⁰ A Corunhako gorabeheren alusioa. Kasu bera aipatzen da goian aipaturiko artikuluan «Der Sozialismus in Spanien», *Sozialistische Monatshefte* 9(1897) 478 orr.

⁵¹ «La crisis del patriotismo», loc. cit., 982.

⁵² «Al repercutir los ecos de Somorrostro en toda España brotó de toda ella un inmenso clamoreo de odio y de piedad, enviando la nación nuevas remesas de sus hijos a salvar a Bilbao. Pedían muchos que se arrasara a sangre y fuego el país vasco, que se acabase de una vez con aquella casta levantisca» (258).

⁵³ Prentsaren eragin gorroto eta gerra supiztailea behin eta berriro salatzen da nobelaren orobat.

«patriotería nacionalista burguesa» bezala, klase terminoetan azaltzen du; jarraituz: «De aquí que la burguesía atice a unos obreros en contra de otros, extranjeros, y *aproveche el movimiento regionalista para falsearlo*»⁵⁴, bide batez Estatu-nazioari «un vasto sindicato internacional de los explotadores de suelos patrios, de los grandes patriotas» iritiz. Aro Berria ere, prozesu ekonomikoaren berezko ekarpena dirudiena⁵⁵, erreferentzia marxistaz hornitzen da hemen: «Entonces se verá patente e intuitivamente que la Tierra ha sido humanizada por el hombre, entonces vivificará el sentimiento patriótico por la fusión de sus dos factores: el que arranca del primitivo comunismo de tribu, y el que tiende al final comunismo universal»⁵⁶. Eta nobelan «afirmándose al negarse» bezalako itxura hegelianoetan espresatzea maite duen Unamunok, itxura hegelo-marxistak egiten ditu saio honetan: «Y mientras llega este día [Aro Berriarena] es necesario paso el de esta polarización; es, empleando un tecnicismo fuera de moda, la antítesis de la vieja tesis patriótica doctrinaria, antítesis que precede a la síntesis final; es la diferenciación que prepara la integración suprema». Hori da konklusioa: «Cuanto más se diferencien los pueblos, más se irán asemejando, aunque esto parezca forzada paradoja, porque más irán descubriendo la humanidad en sí mismos. El pueblo es en todas partes lo más análogo. Tratan de separarlo, para vencerlo mejor, los que en todas partes lo explotan»⁵⁷. Deszentralizazioa, beraz; herri bakoitzaren burujabetasuna, askatasuna, askatasun osoan gero elkartzeko. «Libertad, libertad ante

⁵⁴ «La crisis del patriotismo», loc. cit., 983 (nire azpim.).

⁵⁵ «El proceso económico-social moderno, mercantil e industrial, arrancando del libre cambio trae el verdadero cosmopolitismo, la gran patria del espíritu, que del cambio se nutre, la gran Patria humana» (Ib., 980).

⁵⁶ *Ib.*, 983. Prehistoriaren ez ikerketa, «asmaketa» ideologikoa da hau ere berriro, baina interesgarria da guretzat, adierazten duen naturaren eta historiaren ikuspegiagatik: historia «alienazio» bat bezala da naturatik; historiaren buruan (laster alegia), alienazio hori gainditu eta, gizadia bere hastapen naturalera —baina historiak perfektionaturara— itzuliko da. Alegia, hasieran gizakiaren berezko edo «naturala» bezala komunismo primitiboan suposatzen da, eta berriro komunismora itzuliko da historia bere buruan, baina (industriak eta zientziak) perfektionaturiko komunismo zibilizatua izango da hori. Historiaren ideia zirkular hegeliano hau (hau da, funtsean kristaua: hasieran natura dago, jatorra eta ona —Jainkoak egina baita!—, gero jatorrizko bekatu edo «erorikoaz» alienazio historia hasten da, Azken Judizioan berriro dena bere zuzentasunera itzuliko da), Engelsek jebetasunezko terminoetan irakurri du, Morgan antropologoaren testuetatik hori atera ahal zuelakoan, arrakasta handiarekin sozialisten artean. Gaur badakigu, a) «lehen gizarteak» antolaketa sozial modu oso diferenteak dauzkala, eta b) haietan ahaidetasun erlazioak jabetzazkoak baino askoz garrantzizkoagoak direla bizitzarako eta iraupenerako. Dena dela, Unamunoren pentsamenduan natura eta historia nola harremanetan diren garai honetan oraindik garbi ikusten da.

⁵⁷ *Ib.*, 982.

todo, verdadera libertad. Que cada cual se desarrolle como él es y todos nos entenderemos. La unión fecunda es la unión espontánea, la del libre agrupamiento de los pueblos»⁵⁸. Eta orduan, kosmopolitismoaz batera, egiazko abertzaletasuna —aberriaren maitasuna— posible izanen da: «Toda la historia humana es la labor del hombre forjándose habitación humana, toda la civilización tiende a desasir al Hombre de la Tierra, a libertarle del terruño, a que sea él quien posea a ella y no ésta a él. Desasido de la tierra, la querrá el hombre, porque el labriego que de ella vive le tiene apego, no amor. Amor le cobra el artista que la siente, el sabio que la comprende»⁵⁹.

5

Hogeita hamairu urte dauka Unamunok *Paz en la guerra* argitara denean. Ordurako sortua du Bilbon Arana Goirik Eusko Alderdi Jeltzalea (1895). Unamuno gaztearen posizioan J. Marichalek «un relativo nacionalismo vascongado» seinalatu zuenetik (1964)⁶⁰, badirudi abertzaletasunaren sorrera eta Unamuno hori erlazioan jartzeko ez dagoela problemarik —«Lehen Unamuno» esaten zaio, baina ez litzateke asmatzea erraza izango bigarren, hirugarren eta zenbat beste Unamunok jarraitu beharko lukeen—. R. Perez de la Dehesarentzat (1973) «la primera ideología política de Unamuno —y esto será una sorpresa para muchos— fue el nacionalismo vasco»⁶¹. Autore honek separatista ere irizten dio, eskrupulo handirik gabe. Antza Unamunok berak ere gustoko zuen nolabait aranismoaren egiazko aitatzat edo, inspiratzailetzat, bere burua agertzea, gurekin dugun J. A. Ereño Altunak ohar biziki interesgarri batzuetan irakatsi zigunez⁶². Dudarik ez dagoena da, Euskal Herriko zenbait Alderdi politiko eta kulturalak gaur-egun duena baino Euskal Herriaren errealtate politiko nahiz kulturalaren kontzientzia askoz apurtugabeagoa erakusten duela Unamunok, zuzenean ala zeharka, XIX. mendearen bukaeran (herri gisa berez dagokion subiranotasuna, Nafarroaren, Baskongaden eta Iparraldearen euskal berdintasun eta batasuna, etab. —ez aipatzeko hainbeste jende gure artean ikaratu

⁵⁸ *Ib.*

⁵⁹ *Ib.*, 980.

⁶⁰ MARICHAL, J. (1966): «Unamuno y la recuperación liberal (1900-1914)» konferentzia, in: *El nuevo pensamiento político español*, México.

⁶¹ PÉREZ DE LA DEHESA, R., aip. lib., 17-18.

⁶² Ik. UNAMUNO Y JUGO, M. de, *La unión constituye la fuerza*, loc. cit., J. A. Ereño Altunaren Hitzaurrea, XXIII-XXX.

duen «euskal arima» hori—, ebidentziak dira oraindik harentzat)⁶³ Gerora, zentralistak adina regionalistak berak majo ahaleginduta, ebidentzia horiek aspaldi galduak ditugu bazter hauetan. Gaur euskal ezer aipatzea (euskal kultura, etab.) ez da problematikoa soilik, okerrenaren guttiz susmagarria ere baizik. Baina susmo txarren negozioa ez da nonbait oraingoa bakarrik. Konkretuki *Paz en la guerra* hau dela eta, Unamunok berak kontatzen digu, berari ere kritikoa batzuk nola haserretu bide zitzaizkion Espainian, karlisten krimenak ez omen zituelako aski salatzen eta karlista gaiztoak ez aski kondenatzen⁶⁴.

Bere sentimentu posibleak aparte, Unamunoren Euskal Herriaren ikuspegi filosofikoa (garai honetan) ez da eta ezin da izan independentista, separatista⁶⁵. Nobelan franko ironiaz aipatzen da «Durango, en donde se ensayaba el Estado carlista» (284)⁶⁶; eta ironia baino zerbait gehiagoz gogoratzen da nola izan den hori «un incipiente Estado, merced, en gran parte, a la ayuda de aquellos voluntarios castellanos viejos que corrieron al Norte». Euskaldunak geure artean isolaturik egon nahiaz, beste orotatik bereiz, eta euskal deitura garbi jatorren maniaz, ederki trufatzen da⁶⁷. Unamunok buruan daukana ez da euskal Estatu bat. Harritu bagaitzake ere, mendea bete geroago Maastrichteko Europan oraindik nahiko utopikoa ageri dena, askok amets egiten duen Es-

⁶³ «Somos todos los vascos de una misma raza, hablamos la misma lengua, tenemos el mismo espíritu» («Espíritu de la raza vasca», *loc. cit.*, 79). Hendaian dagoela, «este rincón de mi terruño nativo» deritzo, etab., etab.

⁶⁴ Ik. *En torno al casticismo*, Bigarren Argitalpenari Hitzaurrea (1902): «(...) quise expresar lo que había visto de la vida íntima del pueblo que en aquellos sucesos se manifestó. Y no faltó quien me llamara carlista porque en vez de estrumpear en imprecaciones y maldiciones contra los partidarios de Carlos VII y hablar de los crímenes del carlismo y otras majaderías de la misma frasca, me propuse ver y hacer ver serenamente lo que el carlismo encierra en sus redaños y la útil y poderosa fuerza que es».

⁶⁵ «Todo español debe rechazar el nombre calumnioso de separatista. En España no hay separatistas, ni los habrá jamás, si no los hacen los ciegos adoradores de la centralización brutal» («Espíritu de la raza vasca», *loc. cit.*, 69).

⁶⁶ «Había ya sellos de correos, principio de un ordenado sistema de comunicaciones; *perros grandes*, monedas de cobre auxiliares y fraccionarias de las nacionales de plata, *perros grandes* con la efígie del rey por la gracia de Dios, coronado de laurel, como un César; habíase establecido el telégrafo; iba a abrir sus cursos la Univesidad de Oñate; repartíanse condecoraciones, condados, marquesados, ducados; se creaba oficinas y cargos públicos. Iba montándose poco a poco la complicada máquina del Estado al amparo de las armas». «Un Estado chico, con sus sellos de correos, sus *perros grandes* y su Univesidad» (300).

⁶⁷ «¡Y aquéllas eran Juntas, aquéllas! De los 177 firmantes del mensaje —decía Gambelu—, catorce tan sólo, nada más que catorce, tenían apellido castellano. Y los demás, ¡qué apellidos! Gabicagojeascoa, Muruetagoyena, Urionabarrenechea, Mendataurigoitia, Iturriondobeitia... ¡Qué hermosa! Para que les hinque el diente un *pozano*» (292).

tatuak gainditu-eta herrien Europa, horixe zen, duela ehun urte jada, Unamunoren ideia harrigarria! Ez, bada, «regionalismo exclusivista» bat, ikusi dugunez, baizik regionalismo bat «generoso y elevado que busca en la desintegración de nuestras frágiles nacionalidades [Estatuak] la base de una futura integración más honda de los pueblos» (1899)⁶⁸.

Kontua da, hori utopikotzat ala metafisikotzat hartu behar den kasu honetan.

Arazoi nagusi-nagusi bi dago, edo azken finean bat, pentsamendu hau abertzalea ezin izateko, eta —funtseanago— Unamunoren pentsamendua ezin izateko egiaz politikoa. Historiaren ikusmoldea bera da. Baina honek hainbat aspektu inplikutzen du, bi oso orokor bakarrik aipatuko dut nik orain. a) Bat da, Unamunoren historiaren filosofia kontenplatiboa dela: marraskilo baten organismoa ikertzen duen zientzia positibo neutral baten maneran, kanpotik bezala, begietsi egiten du (egin ahal uste du!) bilakaera historikoa. Ez bakarrik ez du izan nahi, baizik ezin da izan historian interbenitzeko ekintza-teoria bat, debekatu egiten du interbenitu gura izatea. Izan ere, teoria honek espreski aitortzen duenez (eta bere buruaren konprentsioa adierazten du horretan), historia ez duite ideiek eta teoriak, ez giza asmoek, nondiknoratzen, bere halabeharrezko bidea beti barrutik determinaturik ibilki. b) Bigarren arrazoia espezifikoki Euskal Herriari dagokio. Gomuta orain hasieran aipaturiko etnologiaren eta historiaren arteko diferentzia hura. Historiaren aldean intrahistoriari halako balio kasik eskusiboa ematen bazaio, azkenean lorpen historikoen (autogobernuak berak, politika guztiak finean) axalekoa beste inportantziarik ez dauka. Euskal Herriaren inportantzia guztiak intrahistorikoa dirudi, ordea, Euskal Herriak historiari ez dauka. Unamunoren terminoetan, Euskal Herria natura da, ez historia. Beraz, Euskal Herria eternoa, etab., bai, bada (historiaurreko eta historigaindiko edo pekoa, nahiago dena), «esentzia» bat, izpiritu edo arima bat; baina errealitate historikorik ez du bere propioa, historigintza prozesuko (Euskal Herria gaintitzen duten) momentu ezberdinetan bera naturaren manifestazio bat izatekoa ez bada, edo bestek dagien historigintzan (Gaztelak, Elizak) parte hartzekoa. Badago gero bigarren arrazoi honekin batera funtzionatzen duen beste zerbait, eta da, Euskal Herria, oso-osoki ez bada ere, funtsean Euskal Herri berreritarrarekin identifikatzen dela. Euskaldunak (nekazariak) natura dira eta naturarekin bateginda bizi dira («inconcios del progreso»), historiari

⁶⁸ M. M. URRUTIAK aipaturiko pasarte argitaragabea, cfr. *Evolución del pensamiento político de Unamuno*, Bilbao 1997, 110.

axola mendrenik gabe. «El día de la Gloriosa [1868ko iraultza] había sido para ellos como los demás días, como los demás sudaron sobre la tierra viva que engendra y devora hombres y civilizaciones. Eran los silenciosos la sal de la tierra, los que no gritan en la historia (...). Viviendo en trato íntimo y cotidiano con la naturaleza, no comprendían la revolución» (98). Honela dio Unamunok euskal arrazaz: «Durante siglos vivió en silencio histórico, en las profundidades de la subhistoria, hablando su lengua milenaria»⁶⁹. Unamunok errepikatzea maite duen ideia da hori: «Somos un pueblo recién nacido del pristino estado de naturaleza, ayer sin historia, hoy en ella»⁷⁰. Behin baino gehiagotan aipatu izan du Cánovasen esaldia ere: «Si los pueblos sin historia son felices, felicísimos han sido los vascos durante siglos y siglos»⁷¹. Euskal Herria «historia gabeko» herria da, espresio horrek XIX. mendean esan gura duen guztiarekin.

Hau dena, historiako gertakarien analisis ezplizitoki azaldutako tesia baino gehiago⁷², praktikan erakusten duen Unamunoren aldearrezko jarrera teoriko basikoa da (metafisikoa hain zuzen!). Eta praktikan eraginkorra da nobelaren eraikuntzan ere. Hona hemen adibidetxo bi, karlistak natura (ezhistoria) direla azpimarratu nahi dutenak —funtsean nobela guztiak nahi baitu hori!:

1. Sentimentu (edo instinto) munduaren trataera guztia da bat. Ama karlistak basapiztia odolgoze batzuk dira (ama liberalak ez bezala, izpiritu landuak); konpara nobelan zehar hiriko eta landako nesken sensualitatea bera: natura basatia emakumeena

⁶⁹ «Mi raza», in: *Obras Completas*, Madril 1966-1971, bol.IV, 261. Ik. artikulua bera, diferentzia batzuekin eta «Alma vasca» tituluaz, in: *La raza vasca y el vascuence*, loc. cit., 81: hemen «en las profundidades de la subhistoria» ordez «de la vida» irakurtzen da: bi kontzeptuek elkar esplikatzen dute. Irakur hor bertan orobat: «Pero, ¿es que no hemos tenido historia? ¿Nos han faltado Aquiles u Homeros que nos hayan cantado? «El pueblo inglés es un pueblo mudo; puede cumplir grandes hazañas, pero no describirlas», dijo de su pueblo Carlyle, y con más razón que él del suyo puedo yo decirlo del mío. Y así como Carlyle añadía que su poema épico, el de los ingleses, está escrito en la superficie de la tierra, así añado yo que, más modestamente y más en silencio aún, ha escrito en la superficie de la tierra y en los caminos del mar su poema mi raza, un poema de trabajo paciente, en la América latina más que en otra parte alguna».

⁷⁰ «Espíritu de la raza vasca», loc. cit., 63. Egoera naturaletik batbateko irteera brusko horrek esplikatzen omen du (beste ezaugarri arrazial bat!) Euskal Herrian hainbeste ero eta gaixo mental egotea, beste tokietan baino hagitiz gehiago.

⁷¹ «Espíritu de la raza», loc. cit., 77. Gehitzen du Unamunok: «Ayer éramos bárbaros montañeses rodeados de pueblos cultos; hoy marchamos a su lado (...). No necesitamos glorias de ayer; tenemos las de hoy, tendremos las de mañana».

⁷² Nahiz eta horretarako digresioak ez dituen falta izaten: Loiolaren gaztelartasun izpiritualaz, etab., suposatu den doktrinaren ilustrazioak, ez frogak.

ere! («Los ojos bovinos» baserriko neskarenak). Soldadu karlistengan «izpiritu zaharra» berbiztu da. Ignaciok Santa Kruz apai-za ikusten duenean: «Aquel hombre de otros tiempos, con su hueste medieval, le revolvió a Ignacio el fondo, también de otros tiempos, del alma, el fondo en que dormía el espíritu de los abuelos de sus abuelos». Karlisten gogobarne prehistorikoa aipatzen duten esaldi modu hauek behin eta berriro errepikatzen dira. «De la guerra una fiesta» egiten dute. Festa egunean, gero, «¿cómo iban a celebrar sus triunfos sino comiendo? ¿Hay acaso otra fiesta en la aldea, ni distracción de otra clase?» (165). Sentimentu natural primitiboetako jende hau, are primitiboagoa da pentsatzeko. Ez du ezer pentsatzen. Apaizak pentsatzen du bere lekuan⁷³. «Labran su vida, y sin desdoblarla reflexivamente, dejan que la fecunde el cielo. Viven estancados por la resignación, inconcios del progreso, con marcha vital tan lenta como el crecimiento de un árbol» (99).

2. Labur samar esateko, modernoa eta euskalduna kontraesan bat da: Armada erregular karlista (edo euskaldun) bat, adibidez, autokontraesan bat da Unamunorentzat (eta, ondorioz, Estatu euskaldun bat, etab., berdin). Zeren-eta euskalduna, borrokaria izan, bada (euskaldun bakezalearen ipuinari muzin dagio berak), baina borrokari primitiboa, ez organizatua, hots, ez modernoa. Etxean eta etxe inguruan euskalduna berez baketsua da, bakean uzten badute behintzat. Unamunok Domingo baserritarra behi-ri zelaian begira-begira deskribatzen du, pipa erretzen duen artean begiekin hura laztanduz. Huraxe da bere probidentzia eta harrotasuna, bere «historia» guztia (lana, feria, bere aurrezkiak, familia). «Diríase que su casta, en la larga convivencia con el buey, había tomado de él la resignación y la calma fuerte, la laboriosidad, el paso lento con que le seguía tras la rastra y el arado, paso a paso, siguiendo el surco fecundo, y que como el toro, también su casta, sacada de sus nativos pastos, embestia con vigor, llenando los campos *ajenos* con sus hazañas» (102, nire azpim.). Euskaldunak *besteren* historia betetzen du. Bera naturan bizi da, ez historian; edo, gutxienez, ez historia moderno industrialean. (Bizkaia ez da oraindik industrialtzen hasi). Armada erregular bat, ordea, Aro industrialearen asmaketa da. «¿No es acaso el liberalismo, que combatían, el creador de esos

⁷³ «Todos los aldeanos pensaban lo mismo, oyéndolo de boca del cura» (99). «(...) los aldeanos que, en pelotones y dirigidos por curas, bajaban a votar» (70).

ejércitos?» (125). Tropa karlistak Unamunorentzat Erdi Aroko banderizoen gerretako Ahaide-osteak berak dira funtsean. Hona testu bat, herri naturalen eta Estatu (nazio) historikoen arteko erlazioa Unamunoren teorian nola artikulatzen den ikusteko ere argigarria. «Todo aquel movimiento popular, surgido del seno del pueblo, de la masa amorfa de que se hacen las naciones, de su fondo protoplasmático; todo aquel movimiento ascendente desde las honduras populares, ¿cabría reducirlo a los cuadros de la milicia nacionalista [tropa erregular liberalak], a la sistematización de aquellos ejércitos brotados de las luchas por la forja de las nacionalidades? [Estatuak alegia]. ¿Cabría sujetar a la disciplinaria jerarquía, a la subordinación descendente de grado en grado, sin salto alguno, aquella masa formada desde abajo hacia arriba? ¡Reducir las partidas a ejército, sus inarticuladas aspiraciones a programa definido!» (133-134). Altxamendu karlista ez da tropa erregular baten antolaketa industrial, baizik «poco a poco, de abajo arriba, como vejetación que va ganando suelo» hedatzen den natura. Anekdotak bat dago, nola karlistek ezin duten ulertu Armada erregularreko diziplina. Ignacio eta Celestino gaztelau karlista Bilbon elkar ezagutu eta adiskideak egin dira. Gero, gerra etorri eta, Celestino ofiziala da, Ignacio soldadu soila. Egun batean Ignaciok «encontró a Celestino, y al acercarse con un ¡hola! contestó el otro: «¡cuádrese usted!»». Subiósele a Ignacio la sangre toda a la cabeza, y le dijo al oído: —¡Vete a la mierda!— (153). Ignaciok ez daki harreman gizatiar naturalak (adiskidetasunezkoak) eta militarrek (hierarkiazkoak) Armada moderno batean) berezten.

Euskaldun karlistak —egiaz interesante bakarrak nobelan: beraiak inkarnatzen dute Euskal Herri benazkoa— *historiatara jostatu* nahita bezala dabilta eta ez dakite nola egin. Hori ez da beren lana. Sartu ere, kanpotik bultzatuak (erregeak eta), gaztelauak engainatuak, sartu direla lan horietan, iradokitzen da. Euskaldunei azkenean erregea bost axola zaie. («Entraron en Guernica... Dieron vivas a la religión, a los fueros, a España, algún ¡abajo el extranjero! y ni un ¡viva Carlos VII!») (113). Baina oso kultoak ez direnez, eta beren buruaz pentsatzen ez oso abilak, Erromatik dagoen Elizak eta kanpotik datorren xarlatan gaztelau pare batek burua erraz berotzen diete. Ignaciok ahozabalik entzuten ditu Celestinoren erretolikak. ««¡Cuánto ha leído!», y llegó a profesarle la leal adhesión de un perro a su amo. Queríale el abogadito como quiere un soberbio al buenazo que le admira, con su chispilla de compasión protectora. «¡Qué noblote, qué entero! —pensaba—. Estos

hombres nos hacen falta para las grandes cosas» (73). Hala piztu da gerra giroa: «Agitadores de allende el Ebro acudían al país vasco a sacudir la timidez de la raza» (105). Euskaldunen eta gaztelauen oposizioa oso markatua dator nobelan, xehekiago azertu beharko liratekeen ñabardura eta maila ezberdinekin. Euskaldunen mesprezua gaztelauenganako (135: «cinco o seis castellanos, pasados del ejército, hacían rancho aparte, desdeñados de los demás»); elkarren lehia, norgehiagoka (143: «tenían que lucirse ante los castellanos»; 144: «regateando a los castellanos el mérito de haber tomado la ermita»); hizkuntz arazoa⁷⁴ edo Gaztelatik etorririko familia karlisten kopuruak sortzen zuten arazo soziala ahaztu gabe⁷⁵. Baina, bestalde, giputzen batailoia larri-larri dabilenean, gaztelauek lagunduko diote (239). Eta Sánchez da —»un castellano que había entre ellos, hombre serio, de quien decían que se fué a las filas huyendo de la justicia [ordena naturalaren heroi bat, justizia moderno «faltsuaren» aurka] y que no quería estar entre paisanos suyos»— izpiritu karlistaren eredu-eredua eta jatorrena (235-237); euskaldunik euskaldunena bezala, nolabait, izpirituan, gaztelaurik gaztelauena Inazio Loiolakoa omen den antzera. Eta gaztelauak dira, batez ere, Estatu karlistaren saioa egiten laguntzen, are gidatzen, dutenak.

Historia ez da euskaldunena. Horieta eternitatea da, «Jainkoa eta Foruak», historia azpiko substratuaren ordena natural erlijiozko eta ohi-turazkoa. Historia, espainola edo eliztarra da. Eta Euskal Herria base-riarekin bezala, historia monumental eta literariak identifikatzen da tout court historia. Ekintza militar eta eliztar handiekin. Hori da Ignacio mutikoa liluratzen duen historia: Sanson eta Karlomagno, Oliveros de Castilla, Artús de Algarbe. «Dormíase Ignacio soñando con Pelayo y su cruz en las cimas de Idubeda, con el Cid, Fernando el Santo, Alfonso el de las Navas, que muy luego se le confundían con Roldán, Valdovinos, Ojiero y los de la laya ésta. Al grito mágico de ¡Dios y Patria! el rey regeneraría a España...» (88; ik. 49 halaber).

Nondik sortu da karlistadaren irakurmolde hau Unamunoren buruan? Unamunoren historia intelektual pertsonalean bere momentua eta bere lekua dauka honek denak, horiekin ulertu behar baita. Madrilgo irakurketekin eta, batez ere, tesi lanarekin, burua Euskal Herriaz be-

⁷⁴ «Todos los aldeanos pensaban lo mismo, oyéndolo de boca del cura» (99). «(...) los aldeanos que, en pelotones y dirigidos por curas, bajaban a votar» (70).

⁷⁵ «(...) Cesaron las exacciones continuas, las sacas de raciones con que alimentar al ejército carlista y, lo que era más duro para los que las servían, a aquella nube de familias castellanas que por tener en la insurrección a miembros propios tuvieron que emigrar al país carlista y vivir sobre éste» (303; ik. 291 ere).

UNAMUNO: "La revelación que me fue la historia", 74. oin-oharra gaizki dago (73. errepikatzen du). Beste honek izan behar du:

74 "Para ellos son las maduras, y las duras para nosotros - decía un castellano. Serán los que al cabo saquen la mejor raja -contestóle otro-. Con su condenado vascuence, que ni Dios entiende, y con encogerse de hombros y "Yo no entender. Vizcaino ser, pues", se salen siempre con la suya" (242).

*Joxe Azurmendik iperritako ohar-zuzenketa
(99ko urria).*

terik zeraman Unamuno gaztea, kasik Euskal Herririk deus gabe geratu da. Emaitzak suntsigarriak izan dira. Euskal arrazaz eta jatorriaz esan den gehien-gehienak ez duela pulamentu zientifikorik, aurkitu ditu. Euskaldunok antzinako iberoen ondorengoak garela eta, beraz, Iberiako lehen kulturen sortzaileak izan ginela esateko, ez dagoela oinarririk batere. Aitzitik, euskal kulturarik funtsean deus ez dagoela: erlijio, mito, herri literatura eta abarrik. («Toda, absolutamente toda la civilización que poseemos los vascos se la debemos al cristianismo y a los pueblos extraños: ellos nos han civilizado»)⁷⁶. Euskara, fase primitibo gainditu bateko organismo enuldua dela (hizkuntzak ere organismoak dira), maila kultural berrietara egokitu ahal izateko elementu arrotzez kargatu behar izan duena (oso latinizatua batez ere)⁷⁷, geroz eta moldakaitzagoa ordea eta ezgaiagoa progresoari jarraitzeko. Historiaren martxari eusteko abandonatu beharra dagoen hizkuntza xahar tartail bat; berez hilko dena, edonola ere, gaztelaniari aurre egin ezinez⁷⁸. Izan ere,

⁷⁶ Ik. «Del elemento alienígena en el idioma vasco», in: *Obras Completas, loc. cit.*, bol. IV, 134. «La cultura que el pueblo euscalduna debió tener anteriormente a su roce y choque con los pueblos extraños debió ser mínima (...). Tengo por indudable que el pueblo euscalduna era antes de su comercio con los iberos, celtas, latinos y españoles un pueblo de cultura atrasadísima, casi nómada, que debía vivir de la caza y la pesca, sin que podamos conjeturar tuviera una religión y un culto si no es la religión naturalista, sin templos ni sacerdotes».

⁷⁷ *Ib.*, 120 eta hurr. Ideia erlijioso, ezmaterial edo psikologikoak adierazteko berbak oro (1), eta kontzeptu orokorrak oro, abstraktuak (2); kultura sedentario landu samarrik adierazten duten tresnen izen asko (3); burdinaren edo metalen industria, laborantza, eta edozein teknikako berba asko halaber (4), baina baita fauna eta florakoak ere (5); harreman sozialak adierazteko hainbat eta hainbat orobat (6), inguruko hizkuntza arrotzetatik maileguan hartuak ditu euskarak. Ez ditu berak sortu ahal izan. «Afirmo y sostengo que el vascuence carece casi en absoluto de vocablos que expresen ideas suprasensibles» (126). «No quedan, ni en la costumbres ni en el idioma de los vascos, reliquias de un culto propio e indígena anterior a la introducción del cristianismo» (126). «La cultura de un pueblo se mide más que por el número de objetos que conoce, por el grado de abstracción a que llega en sus ideas (...). Es un hecho curioso la pobreza del vascuence para expresar con vocablos propios las ideas generales» (128). «Apenas conozco en vascuence términos bélicos indígenas» (131). «Hemos visto que en el vascuence, único monumento auténtico en el que se puede estudiar la prehistoria del pueblo vasco, hay un elemento alienígena grandísimo, y que este elemento representa aquellas ideas que acusan cierto grado de cultura» (134). - Gero, euskal kulturarik batere ez dagoela, «no tenemos más cultura que la cultura hispana, la que nos ha prestado Castilla, Andalucía, Aragón», Euskal Herriko sozialismoaren (PSOE) filosofia ofiziala bezalatsu izatera pasa da, ik. Fusi, J. P. (1975): *Política obrera en el País Vasco (1880-1923)*, Madrid, 391.

⁷⁸ *Ib.*, 135: «Un idioma es un hecho natural, que tiene su lógica severa y sencilla, y no un arcano de misterios (...). El castellano es un idioma más hecho, más integrado, más analítico, se presta más al grado de cultura que hemos alcanzado, y no se busque en la incuria de los hombres la razón de ciertos hechos: búsquese en la interna necesi-

eboluzio biologikoan bezala da hizkuntzen eboluzioan: «Las lenguas, como todos los demás organismos, no se funden al ponerse en contacto, sino que la una prevalece y la otra sucumbe»⁷⁹. Berdin edo okerrago gertatzen da euskal historiarekin. Txahoren eta haren jarraikoen ipuinak birrindu zaizkionean, ez ipuinik eta ez historiarik, hutsik geratu zaizkio eskuak. «Cuando un pueblo carece de tradiciones y leyendas, no falta quien las invente, para luego atribuírselas al pueblo; y ésto ha sucedido en el país vasco». Errealitatea hori da. «¿A qué conduce enturbiar una historia sencilla y clara con invenciones extrañas? El pueblo vasco puede decirse que es un pueblo sin historia hasta el siglo VIII, y por eso lleva en su seno toda la fuerza virgen de una naturaleza no gastada», protestatzen du Unamunok... Azkueren edo Barandiaranen ipuin herritarren bildumak egoteko oraindik urte asko falta da; Guerrak ezagutzera emango duen Erdi Aroko epikarik ez da ezagutzen; Euskal Herriko historia egiazkoa Antzinatean eta Erdi Aroan misterio bat da; berak nolabait errebindikatzen duen historia soziala, egunoroko jendearena, oraindik ez da erne...

Euskal kulturarik ez dago, historiarik ez dago: Unamuno, edo euskal mundu dena pikutara bidali, edo Euskal Herria zer den, irakurketa berri bat berak asmatu, egin beharrean aurkitu da. Spenceren filosofiak (eta «herrien psikologia» alemanak, Tainek, etab., hemen ardura ez zaizkigun beste iturri batzuek)⁸⁰ lagunduta, Euskal Herri *natur herriaren*

dad de los hechos mismos (...). El vascuence se va porque no puede resistir el choque, porque lucha desesperadamente por la existencia contra un idioma más fuerte; más fuerte por sus condiciones externas y más fuerte por su interna organización. - El día que el idioma se haya ido el pueblo agonizará (...) cosas son como son y deben ser como son. Los latinos nos sacaron de la barbarie, ellos nos han civilizado, ellos nos arrastran consigo a fundirnos en la gran familia latina hija del pueblo más grande, más robusto y más fecundo». Ik. bolumen berean, 142 orrian («Más sobre el vascuence»): «A mi juicio un idioma aglutinante no puede nunca ser tan perfecto y claro como uno de flexión. La perfección de los idiomas consiste en simplificar los medios, en pasar de la expresión sintética a la analítica, como el castellano ha hecho sustituyendo a los casos latinos las preposiciones, y a su llamada voz pasiva, el uso del auxiliar. Yo creo que la perfección consiste en pasar de la aglutinación a la flexión, y de ésta, a la expresión analítica». *Ib.*, 157 («Espíritu de la raza vasca»): «Los idiomas antiguos eran más perfectos para la expresión de lo real, del sentimiento que brota, del instinto que salta, para la poesía épica, para lo concreto y sus matices. Los modernos lo son más para lo ideal y lógico, para la razón que inquiere, para la lírica que expresa el sentimiento alambicado y reflexivo, para lo abstracto y sus formas; los antiguos eran sintéticos como la realidad, que es una gran síntesis; los modernos, analíticos como la ciencia, que es un grande análisis».

⁷⁹ UNAMUNO, M. de, «Vida del romance castellano», in: *Obras Completas*, loc. cit., bol. IV, 668.

⁸⁰ Herrien psikologia aleman horretaz informazio jakingarria, ik. LA RUBIA PRADO, F., «Völkerpsychologie y filosofía orgánica en la obra de M. de Unamuno (1884-1895)», in: *Cuadernos de la Cátedra Miguel de Unamuno*, 29 (1994) 123-141.

irakurketa asmatu du, etnologiko edo «folklorikoa» gehiago historikoa baino —bitxiki, «euskal erromantizismo belaskari» ihes egin nahita!—. Eta esan beharra dago, periodo batean Unamunok ikuspide hau oso trebeki ustiatzen eta positiboki garatzen jakin duela. Nolabait Euskal Herriaren filosofia berri baten saioa izan dugun horren agerpen nagusia baita *Paz en la guerra*.

Unamunok, Euskal Herriaren krisi handian, zabaltasun filosofikoa, izpiritu autokritiko zorrotza («más historia y menos leyenda, más crítica y menos poesía»!), enpeinu eraikitzaile positibo bat, egizaletasuna, ekarri du, arazoari zintzo aurre egiteko. Baina, kualitate positibo guzti horiekin ere, soluzioa ez da oso-oso problematikoa izatetik ondo salbatzen. Beharbada filosofikoki irabazten duena, beste aspektu batzuetan soberasko galtzen baitu. Konparazio batera hementxe ikusten da garbi, Arana Goirik nazioaren eta independentziaren kontzeptuekin zer iraultza ekarri duen pentsamenduan bertan (iraultza mentala), baina ikuspide politikoa batez ere. Kontrastean, Unamunok ezerezean lagatzen zuen historia, adibidez, Arana Goirik birreskuratu egin nahiko du; eta, bera historikaria izateke, euskal historiaren berrekongratu esfortzu handia egingo du pertsonalki. Berdin euskararekin: Arana Goirik erreminta moderno efikaz bat bihurtu nahiko du, iraganeko pitxitzat utzi gabe, etab.

Hemen, bi galdera elkarrekin loturik daudenak, letozkiguke gogora: 1) fantasiatako Euskal Herriaren aurka arrazoi guztiarekin erreakzionatu eta gero, zein zen Unamunoren «Euskal Herri erreala»? (Oso edukin gutxiakoa begitantzen baitzaigu). Luzarora ez ote zuen ezinbestekoa gertatu behar teinkak eta etenak, alde batetik Euskal Herri «natural» horren, eta bestetik Unamunoren «utopiaren», ideien, razionalismoaren, hots, intelektualismo beti kondenatu baina beti praktikatuaren artean? Eta 2) Unamunoren erregionalismoak hemen daukan fundamente filosofikoak, zein garapide teoriko eta praktikoa uzten zuen benetan, intelektualki eta politikoki, 1900 inguruko errealtatea zen bezalakoa izanda Euskal Herrian zein Espainian? Unamunoren «errealismoaz» da itauna. Baina Unamunok, errealtatearekin kontrastatuz garapenik entseiatu gabe, etena erabaki du, krisi larri batean.

Unamunori buruz hitzegiten dugunak, hura gogoko dugunak izan ohi gara. Espero dut, ez dela horregatik bakarrik, neuri bederen, Unamuno mitokritikoa, egungo bere kopiatzaileak baino arrazoizkoago edo ulergarriagoa agertzen bazait. Besteak beste, gaur badugu nahi-

koa patxada eta nahikoa eskuabes zientifiko, mito haien jatorria eta eginkizun soziala historiko-kulturalki, politikoki, sozial-psikologikoki esplikatzeko, beren garaiko eta gizarteko baldintzetan arrazoizkotzat edukitzeko beraz —haien ez-zientziakotasuna osoki ezagutuz berdenboran—, garai hartako musika edo pintura ulertzen ditugun bezalaxe. XIX. mendeko filosofia positibistekin Unamunok ez zuen holakorik ezer. Hari, kritikak, mundu sinboliko maitatu bat erraustu egiten zion, ez zion laguntzen bestelako mundu sinboliko bat bezala berrulertzen⁸¹. Bere filosofia kritiko positibistarekin, Unamuno «euskal» errealtaterik gabe geratu da funtsean. Nahi bada eta ez, aurrerabide zaila zeukan hortik, bere filosofiarekin behintzat.

Bigarren, filosofia horrixek buruz: euskal mundua hautsi eta lehen momentuan laguntza eta ausardia berria eman dion filosofiak berak⁸², beharbada gure historiako hainbat miseria birtute bezala interpretatzeko eta horrela kontsolatzeko bide eman eta gero, laster ukatu eta are desegin egingo dio hasieran emandako laguntza. Izan ere, Spencer Ingalaterra triunfaletik mundua eta gizadiaren martxa pentsatzeko filosofia triunfal bat da (eta Ingalaterrako historia horixe, Zesarrek aurkitu zituen tribuetatik, gerra zibilak zehar, aro industrial eta Inperio potenteeneraino altxatua, eta historia honen autokontzientzia ingeles gogobetea, islatzen du): 1890 inguruko Espainia edo Euskal Herriko miseriatik historia pentsatzeko, eraikuntza teoriko horrek nekez balio zezakeen. Espainiakoa ez da behe ilunetik gora burgoi jaikitzen den «arrazoimenaren historia» bat. Espainiak ez du modernitaterik, zeren gailurretik iragana behatu eta interpretatu. XIX. mendean bere Inperio handiko azken hondarrak galtzen ari da. Euskal Herria ia ezdeustua dago, oraintxe galdu ditu Foruak. Ez, ez da historia razional baten gailur distiratsua gure orain hau, non Unamunok zutik bere burua hor ikus dezakeen. Espainia ez da Ingalaterra bezala, Estatu-nazio batasuna

⁸¹ Fenomeno bitxi bat gertatzen da: ipuin historiko horiek razionalki baztertu eta gero, «ipuin horiek egon ziren» nostalgiko batez itzultzen da Unamuno behin baino gehiagotan haietara literarioki —Aizkorrira igoeran, adibidez—, behin desterraturikoa berriro errekuperatu nahiz bezala. Nafarroako mendiez, «montañas en que resonó el último suspiro de Roldán, lanzado por la trompa bélica y el ladrillo del perro de Altobiscar» irakurtzen da gure nobelan bertan (156).

⁸² Ipuin eta mitoetako euskal mundu gaztetan maite-maitea galdu izan arren, etsi barik, lotsagabekeria batzuetarako ausardia eman dio filosofiak, eskuan haren orde zerbait hagitz hobea zeukalakoan, galeratik aise konpentsatzeko: munduko historiaren filosofia sendo bat, euskaldunen aspirazio guztiei —mitorik eta ipuinik gabe— erantzun egokiena ematen ziena. Euskal arazoa ipuinetako tradizio «erromantikotik» aldenarazi eta filosofia positibista bere uestez sendagoarekin lotzea eragiteko asmoz, Unamunok tonu nahiko sarkastikoak erabili ditu artikuluko batzuetan.

behiala egin zuen, orain industriak berriro —batasun «militarra» gaindituz— diferentziapenekin aberastu duen lurraldea. Espainia lurralde industriaurrekoa da, batasuna militarri inposatzen tenorean ari dena hain zuzen! Horregatik Unamunori, bere Spencer adaptatuan, historia baino interesanteagoa intra edo subhistoria ateratzen zaio: herri edo arrazaren «izpiritua», etab., mundu psikologiko-lurpetarra, beste errealtate ukigarriagorik ez baitago. Unamunok —italiarrei jarraiki— osagarri marxista bat eman dio Spencereren positibismoari. Emaitzak gehitu bakarrik egin ditu gizartearen bilakaera historikoaren ikusmoldean zailtzak eta iluntasunak. Jakobinismo kontzeptual, liburuetan ikasiaren aurka, historiaren zentzua errebindikatuko du Unamunok Hegel eta Marxekin; eta horien zentzu historiko handia, frantsesen eta ingelesen aldean, «brotó en un país dividido en patrias regionales», ohartaraziko du (Espainiarekiko antza erreklamatzuz inondik ere bere alde, autore ingeles edo frantsesak «zentzu historizista» batean birmoldatzeko bere eskubidea justifikatzeko)⁸³. Baina gero, Unamunok (Espainiako edo Euskal Herriko) historiaren gidari ez du ikusiko filosofo aleman haiek zioten arrazoimena, instintoa baizik!⁸⁴. Instintoa, ordea, Unamunori berari ere material anbiguo eta suertatzen zaio eskuetan: positiboa, naturaren esanahian; baina oso negatiboa, inkulturarenean.

Inkulturan arazoak, hain zuzen, batez ere 98tik aurrera, geroz eta ardu larriagoa bilakatu zuten joan da Unamunoren gogoetan. («Nuestro deber es buscar el reino de la cultura, y lo demás se nos dará por añadidura», erreztatuko du orain). Inkultura, ez-razionala, kixotismoa, erlijioa, sentimentua, instintoa (alegia, guztizko modernitate eta razionalitate falta, europartasun falta): hori da, Euskal Herrian bezala Espainiako historian funtsezkoena bezala ageri zaion guztia, historiaren filosofia haiek nahi duten «arrazoimen» hori baino askoz gehiago. «Inkultura» espezifikoa eta ja kasik esentzial hori, ordea, mendez mendeko isolamendutik datorkigu. Isolamendua Inkisiziotik: «impidió que brotara aquí la riquísima floración de los países reformados, donde brotaban y rebrotaban sectas y más sectas, diferenciándose en opulentísima multiformidad» (*En torno al casticismo*). Unamunok oso aukera inkomodoa egin du (intelektualki): alde batetik, etengabe protestatzen du isola-

⁸³ «La crisis del patriotismo», *loc. cit.*, 981.

⁸⁴ Horregatik, hasiera-hasieratik hasita, ez dira falta izan Unamunoren sozialismoa errotik arbuiatu dutenak. J. Verdes Montenegrok ongi antzeman eta berari gutunetan esan dionez, Unamunoren sozialismoa oso *sui generis* baita (haren liberalismoa bezalaxe): «(...) La idea que del socialismo tiene es una mezcla bien extraña de un espíritu revolucionario y de un criterio dictatorial conservador, mejor dicho, reaccionario», R. Pérez de la Dehesa aipatua, aip. lib., 57.

mendu eta inkultura horren aurka, zientzia eta kritika exigitzen du, zientzialista da, europartu eta modernizatu egin behar dela predikatzen du; bestetik, kritikatzeko duen historia (euskotar, espainol) horretan positiborik aurkitzen dizuna, berak maitagarrien aurkitzen dizuna batez ere, ez da batere zientzialista egiaz. Gehiago da inkontziente edo mistikoa. Irrazionalarekin, ordea, filosofia positibista bat ezin da ongi moldatu luzarora. Unamunok bere garapide propioak entseiatu beharko ditu —Spencer hegelianoki irakurritz, Marxekin osatuz—, eta azkenean goitik behera eten egin beharko du positibismoaren forma guztiekin (Spencerekin bezala Marxekin), arrazoimena sentimentuari sakrifikatuz. XIX. mendearekin bateratsu, amaitutzat eman daiteke Unamunoren positibismoa. Beste filosofia bat hasten da: irrazionalaren bindikapena, etab. (Unamunoren filosofian, irrazionalaren errebindikazioa da Espainiaren errebindikazioa). Azpitik orain arteko pentsamenduko elementu askok aurrera jarraituko du, baina erabateko etena egiteko borondate erradikalak dominatuko du haien balioa eta zentzua. Politikoki ere azpiko gora irauli da ikusmoldea. Hitz labur hauekin bildu du R. Perez de la Dehesak eten hori: «de un internacionalismo descentralizador a un nacionalismo centralista»⁸⁵.

Espainia handia da bere konkistadore eta santuetan, mistikoetan, kixoteetan. Baina subhistoriaren hondoan geratuta dago, atzeratuta. Nola atera hortik? Estatuak bakarrik atera dezake Espainia bere miseria eta inkulturatik, pentsatzen du orain Unamunok. Estatu zentralista, indartsu, «despota ilustratu» bat behar da horretarako. Estatuak da —idazten du orain— modernitatearen edo askatasun indibidualen berme bakarra, nazioaren kontzientzia internazionala, kulturaren organoa. Estatuak handitu eta indartu behar da. «Se acostumbra maldecir del Estado; se nos ha presentado, siguiendo a Spencer, al individuo contra el Estado. Podrá esto suceder en Inglaterra —y aun lo dudo—; pero en España, no. En España, el Estado, torpe y todo como es, es hoy el principal baluarte de los derechos individuales», aldarrikatzen du Valentziako Ateneoan⁸⁶. Eta famatua egingo den Bilboko konferentzia batean: «Nada más pernicioso y funesto que esa ciega hostilidad al Estado que ha venido desarrollándose, en gran parte por instigaciones de la Iglesia. El Estado es hoy en España tal vez lo mejor que tenemos, lo más europeo. Porque el Estado es la conciencia internacional de España, es lo que ésta es ante los demás pueblos (...). Urge reaccionar contra ese montón de lugares comunes anarquistas en contra del Estado y robus-

⁸⁵ PEREZ DE LA DEHESA, R., aip. lib., 158.

⁸⁶ Discurso en el Ateneo de Valencia (1902), in: *Obras Completas, loc. cit.*, bol.IX, 74.

tecer éste (...) El bizkaitarrismo mismo, ¿qué es en el fondo sino un anarquismo cultural cabileño, que se revuelve contra la justa presión internacional del Estado?»⁸⁷. Anarkistak berak ezezik, Eliza, Bilboko pluktokratak, liberalak, karlistak, bizkaitarrak, denak anarkistak begitantzen zaizkio orain, eta anarkismoa gizarte espainolaren izurri galgarria. Lehen hala goratzen zuen «herria» deusez bihurtu da (instintoa, etab., guztiekin), Boterea da orain zibilizazioa eta zibilizazioa da gizakiaren birtute printzipala. Munduz zibilizatu egin behar da! (eta euskaldunak ere bai...) Kolonialismo eta inperialismo «zibilizatzailea» bera oso ondo iruditzen zaio: «Un sentimiento romántico, es decir, anticultural, podría llevarnos a simpatizar con Irlanda, el Transvaal, Polonia; pero *la causa de la civilización, del legado humano universal* (nire azpim.), está en Inglaterra en los dos primeros casos, con Alemania en el tercero»... Ingalaterra Irlanda zibilizatzen ari da, bere koloniak ere zibilizatzen ari da. Alemaniak Polonia zibilizatu egiten du. Irlandarren borondatearen aurka eta poloniarren borondatearen aurka, baina gizadiaren mesedetan ari dira biak. (Oso urruti ote daude Francoren Altxamenduari oniritzi ahal izateko baldintza mentalak?)⁸⁸.

Eskualdeei orain dagokiena, katalanei eta euskaldunei dagokiena bereziki, Espainia erori gaixo hori, Gaztelak altxatu ezin duena, altxatzea da, eta Estatua modernizatzea da. Bata besteari nagusitzen ahalegiteko eskualdeen «maitasunezko eginbehar anaikorraren» eta «altruismo» konkistatzailearen teoria asmatu du horretarako. Ezagunak dira, batzutan gusto txarrekoak ere (besterik ez esateko)⁸⁹ badiruditen Unamunoren holako boutade batzuk: «El deber patriótico, y aún más que patriótico, humano, de Castilla es tratar de castellanizar a España, y aun al mundo; de Galicia, galleguizarla; andalucizarla, el de Andalu-

⁸⁷ *La conciencia liberal y española de Bilbao*, Bilbao 1908, 16-17. Hemen, umorez bezala esaten da bizkaitarrez, Espainiatik banatu nahi badute, «si es que realmente lo quieren y si pueden lograrlo, sepárense, hasta ésto llego, pero sepárense a tiros, no a coces» (7 orr.). Eta regionalismoaz: «El regionalismo sería la muerte de la cultura, cuyo órgano es el Estado unitario y liberal frente a la Iglesia. El regionalismo es la tradición medieval...»

⁸⁸ Zein erraz kontentatzen garen, azken orduan «distantziatu» omen zelakoarekin! Galdera handia ez da, zergatik edo nola distantziatu zen (batez ere Millán Astrayrekin esperientziaren ondoren), baizik zein presupostu intelektualetatik izan den posible Altxamenduari atxekitzea. Hori da esplikazioa eskatzen duena, ez bestea.

⁸⁹ «Los vascos debemos decir... no que nos dejen gobernarlos, sino que queremos gobernar a los demás, por ser los más capaces de hacerlo. Hay que hacer lo de Italia, en que el Norte se ha declarado contra el Sur y ha declarado a los napolitanos indignos de gobernarse. Sí, hay que proclamar la inferioridad de los andaluces y análogos, y nuestro deber fraternal de gobernarlos. Málaga debe ser colonia», cfr. DÍAZ, E. (1968): *Revisión de Unamuno. Análisis crítico de su pensamiento político*, Madrid, 114, 186. oin-oharrear.

cía; vasconizarla, el de Vasconia, y el de Cataluña, catalanizarla», etab. «El deber patriótico de los catalanes, como españoles, consiste en catalanizar a España, en imponer a los demás españoles su concepto y su sentimiento de la patria común y de lo que debe ser ésta; su deber consiste en luchar sin tregua ni descanso contra todo aquello que, siendo debido a la influencia de otra casta, impide, a su convicción, el que España entre de lleno en la vida de la civilización y la cultura»⁹⁰, etab., etab. Azkenean puntu berera gatoz: Unamunok Kataluniaren gora komertzial eta ekonomikoa, Bizkaiaren industrialtze azkarra, ikusi du, eta Espainia noizpait ere hortik moderniza daitekeelakoan, eskualdeon zeregina Espainia modernizatzean dagoela, ez da aspertu errepikatzen. Hori bai, espainolez izan behar du. Euskara eta katalana⁹¹ bazterrera utziz. «Yo quiero, y lo quiero con toda mi alma de español, que mis paisanos los vascos traten de vasconizar a España y que traten de catalanizarla los catalanes; pero unos y otros tendrán que hacerlo en castellano. Esta es la clave de la cosa». Baina hizkuntzarekiko Unamunoren jarrerak beste lan bat aparte eskatuko luke.

Gauza bat guretzat, euskaltzaleontzat, guttiz kontuan hartzekoa istorio honetan, datak izan daitezke. Unamunoren pentsamendua eta postura erradikalki aldarazi duen, Estatismo eta zentralismo itsura ekarri duen krisi gorri honek, 1900 eta 1901 arte horretantxe ukan du bere puntu gori-goriena. Krisiaren gailurreko amorru guztiaren sua zeraman, hortaz, Bilboko Lore Jokoetako hitzaldi penagarriak.

III

Bidegurutzea 1897ko krisi larrian egon da⁹². Baina lehen momentuko ikara eta konbertsio erlijiosoaren desengainu eta frakasuak, aztora-

⁹⁰ «La crisis actual del patriotismo español», in: *Obras Completas, loc. cit.*, bol. I, 1291.

⁹¹ Katalana ez da —euskara den bezala— fase primitibo bateko hizkuntza tartaila, mundu izpiritual modernoa adierazteko ezgauza; baina katalanaren aldean gaztelania hizkuntza «handia» da («iberoamerikanoa», esaten du Unamunok) eta orain handitasuna eta munduaren konkista kriterio nagusi bilakatu dira Unamunoren balio eskalan. (Badu bere logika modua: gizakiaren grina nagusia hilezkortasunarena ei da, eta hilezkortasunaren forma bikainena hizkuntzan «hilezkortzen den» autorearena da).

⁹² «Aquella noche de marzo sufría insomnio. Daba vueltas en la cama con desasosiego. De pronto sintió que su corazón le fallaba y se vió en las garras del «ángel de la nada». Fue una terrible conmoción. Le sobrevino un llanto inconsolable. Entonces la pobre esposa le abraza y, acariciándole, le dice: «¿Qué tienes, hijo mío?». Al día siguiente desaparece de casa y se refugia en el convento de los dominicos, donde pasa tres días rezando», cfr. PADILLA NOVOA, M. (1985): *Unamuno, filósofo de encrucijada*, Madrid, 63.

tuagotu egin du Unamuno. Bere patu pertsonalak —»sentimentu tragi-koak»— angustiatzen du. Politikoki Unamunok, karlistek bezala, eta Arana Goiri arte denek bezala, Euskal Herriaren soluzioa, Espainiaren soluzioan pentsatu du beti. Baina orain Espainia (bitartean Salamankako Errektore izendatua izan da —1900—, eta kargu esanahitsu horretan misio berezi bat daukala uste du Espainia guztiari begira) Unamunoren erlijioa eta obsesioa bilakatu da. Bere patu pertsonala (hilezkortasuna) Espainiaren patuari lotua ikusten du, hizkuntza eta literatura espainolari batez ere. Haren irakurketek ere beste bide bat hartu dute: aurrena Schopenhauer irrazionalista tragikoaren obran, 1901etik aurrera Kierkegaarden estudioan murgiltzen da osoki horizonte berri bila. Unamuno pertsonalena eta interesanteena, originalena, hemen hasten da, ene irudiko: filosofiko-literarioki interesanteagoa politikoki baino. Kreatiboagoa ere bai. Nolanahi ere, Unamuno «existentzialista» hau izan da, literato eta filosofoa, gerraondoko lehen belaunaldiek gogoz eta grinaz irakurri dutena (San Martin, Txillardeggi, etab.), hori beren kidea eta laguna bezala sentituz borrokan.

Zerbait oso dialektikoa gertatu da, izan ere —hitzaren esanahi txarrean—. Gerra zibilaren ondoren Unamuno kondematuta dago, berak salbatu nahi zuen Espainia horretan: Erromak liburu debekatuen Indexean ipini du, Bilboko Gotzain Gurpidek haren gaitzirizpena pulpitu guztietatik irakurrarazten du Bizkaian. Bitxiki Unamunoren zaleak, abertzale edo euskaltzale gazteak dira, gatazkan hasi diren kristau kritikoak. Lehen fase batean Unamuno «benetako» katolizismorako errekuperatu da: katolizismo ofizialaren (frankistaren) aurka, beraz. Erlijioa baino gehiago Estatuaren doktrina politikoa ofizial bere buruaz segurua zenaren aurka, egiazko fedea zalantzarekin eta bere buruarekin etengabeko borrokan diharduena dela, adieraziko da. Fede angustiatu existentzialista. Lehenengoetako bat Unamuno honen aldeztan Karlos Santamaria izan da, *Egan*-en, eta Donostian eman dituen konferentzietan, batek baino gehiagok gogoratzen baitu oraindik hauek sortu zuten «eskandaloa». Garai hartan ere gauza susmagarri asko zegoen pentsamendu ofizialean, eta Unamunoren sinpatisantea izatea zen bat⁹³. Bestetik, egia zen —dogmatikoak oso gutxitan ekibokatzen dira kontu hauetan—, sinpatizante haiek ez zirela mundu ofizialaren debotoenak izaten. Katolizismo ofiziala baino Unamuno katoliko jatorragotzat hartzeko, nolahi ere, ausardia baino gehiago, sistemari muzin egiteko gogoia behar zen galanta, eta horixe zen gogotik zegoena. Katolizismo Unamunozailea, katolizismo antifrankista eta antieliza ofiziala adinatsu zen.

⁹³ Ik. SUDUPE, P. (1996): *Nemesio Etxanizen biografia eta ideologia*, Bilbo, 177, 78. oinoharra.

Bigarren birreskurapena Unamuno euskaldun jatorrarena izan da, ozta fededun jatorrarena baino zeregin errazagoa («bere burua euskaldun peto eta abertzaletzat daukan asko baino euskaldun jatorragoa» —euskararen etsai hau!—). Lan honi Salvatore Mitxelenak ekin dio *Unamuno ta Abendats* saioarekin (1958). Baezpadan Azpiazu Apaiz omentsuaren hitzaurretzo batez babestu du bere burua⁹⁴. Baina zergatik eta nola kontsideratu hain zuzen Unamuno euskaldun jatorraren prototipo? Eta hor ikusten da, bilatzen den euskaldun jator hau ja beste euskaldun jator klasiko hura ez dela. Unamuno dena da, «Euskal Anima onen gaurko edo mendeterdi ontako ezinegona, kontentagaitza, marmarra ta maxia, negarjotzea, asalda aserrea, menderakaitza, bizi naia, agoni burruka, kontragite edo antagonia, etsipena ta etsiezi-na ta itxaropena, askatu leia, euskal mina ta arrandia, «ni ta ni»a, barkatasuna, azibearra, jaundu gogoa, ezilkor gosea, norberatasuna, langiletasuna, laztasuna, zintzotasuna, erlijiotasuna...» inork baino hobeto ispiatzen dituena⁹⁵. Hau da, azken mende eta Erdiko euskal historia tragikoaren espresioa, hots, azken mende eta Erdiko euskaldun egiazkoa. Euskalduntasuna ulertzeko modu berrian Unamunok leku bat hartzea honek esplikatzen du. Euskalduntasuna bera ez da ja tipo ideal —euskaldun baserritar bakezale, demokratiko, fededun— baten irudira ulertzen; historikoki ulertzen da. Testu hau 1958an argitaratua da, urte pare bat lehen idatzia.

Foruen hondamendiaren osteko Euskal Herriaren hiru garapide bezala ikus daitezke Arana Goiri (edo euskaltzaletasuna, nahiago bada), Unamuno, Pio Baroja. Konkretuki Unamuno eta Baroja esan liteke biak norabide kontrarioetan mugitu direla. Unamuno, oso Euskal Herrizale hasirik, geroz eta gehiago mesetarekin identifikatuz joan da, Gaztelaren eta Espainiaren mistiko bat bilakatu arte, Euskal Herriaren axola handirik gabe eta iparraldeko Europaren zaputz. Barojaren hasiera literarrietan, alderantziz, Gaztelaren lilura eta interesa dago. (Euskal Herriko hiri merkatari edo industrialetan ez baino, «no pensamos más que en Toledo y en Granada»). Baina geroz eta gehiago iparraldeko lanbroa eta paisaia gustatuko zaizkio, Euskal Herriko jendea, itsasturiak, abentureroak, ipar Europa germanikoa eta bere mitologia, geroz eta gogai-karriago zaizkion artean Gaztelako eguzkia eta Mediterraniako argitasuna, hegoaldeko izpiritu komediantearen ere destaina geroz eta mingotsagoz. Barojak ere bereak esan izan ditu hemengo hainbat jen-

⁹⁴ «Susmo txarrez letozkidake bearbada zenbait irakurle», hasten da saioa. «Euskaldun baten billa natorkizu beraz Unamunogana».

⁹⁵ MITXELENA, S. (1977): *Idazlan Guztiak*, Arantzazu, bol. I, 312.

de eta gauzari buruz, euskara ez du egungo munduan baliagarritzat jo, eta, batez ere, beti ezinikusi garratz bat erakutsi du jeltzaleekiko. Hala ere, gerra ostean, Koldo Mitxelena euskal eta jeltzaleak Barojaren euskalduntasun eta jatortasuna errebindikatu du⁹⁶, Jon Etxaide, Txillardegí, Barojazaleak izango dira.

Hirugarren Unamuno birreskuratua kritikoa da, egiatia, mito eta us-teonen apurtzailea, are «ezkertiarra»⁹⁷. Eskuina ala ezkerra alternatiba-ren maneran, «Unamuno ala Jammes?», ipini du Txillardegik alternati-ba: nork espresatzen du zinezko Euskal Herria, zinezko errealtatea?⁹⁸. Eskuinkeriak utzi eta, abertzaletasunak kritikoa eta zinezkoa izan behar du. Txillardegik «bizkaitarren» arrazakeria eta integrismoa salatzen du (eskuindarren ezaugarriak biak)⁹⁹. Behiala Unamuno gazteak bezalaxe, euskal historiaren mitifikazioa salatzen du orobat, eskuindarkeriatzat jotz: «eskuindarrek aspaldiko euskaldunen zoriontasunaren ipuia sinista-razi nahi digute besteoi; eta ezin lorturik, gutaz etsitzen dute. Zergatik etsiko? Orain arte, nere ustez, eta aspaldian are gutxiago, euskaldunak zoritxarrean eta zapaldurik bizi izan dira. Eta hau egia dala frogatzen ahal dala uste dugu. —Ezkerterrek uste dute, beraz, badala garaia eus-kaldun herriak lehenengo aldiz bere burua altxa dezan; eta hau esatean ez dugu milimetro bat ere atzera joan nahi, «lege zahar» bila, denbora «zoriontsu» haietaz ez baitugu deusik ere sinesten—. Ikusi besterik ez da hau Euskal Herriko kondairan; edo euskalduna nola bizi dan alda-kuntzarik gertatu ez diran eskualdeetan. Gogora ekarriko ditut ezauga-rrí nagusiak: gosea, eritasuna, miseria, edozertarako behar gorria, apezkeria, ezjakintasuna, euskaldungoarekiko mespretxua, eta mo-rróin-plegua. Horra hor galdutako parabisua»¹⁰⁰. Berriro: «Hemen nik esan ditudan batzuk, zalantzarik ez, asaldatu egingo dituzte nere herri-kide batzuk: gure kaso ez omen da berdina, gure kondairan Euskal Herria demokrazia hutsean bizi izan omen da. «Chauvinismoa» eskuin-darra da; eta asaldu horrek gehiago erakusten du asaldatuen eskuinta-suna, beste ezer baino. Euskal Herrian, beste nunahi bezelaxe (edo bes-te nunahi bezelatsu bederen), baziran nagusiak eta morroiak,

⁹⁶ «Maite zituen gure zeru-lur-itsasoak, maite gure jendea, gure izaera, gure gizabi-dea, gure mintzaera euskaraz ala erdaraz», «gure lurraldea inor gutxi bezala ikusi du», ik. MITXELENA, K. (1972): «Baroja hil ondoan», in: *Idazlan Hautatuak*, Bilbo.

⁹⁷ Ik. (1965): «Eskuindar eta ezkerter», in: *Huntaz eta Hartaz*, (Goiztiri), 27-40. Ikus 30. orrialdean, adibidez, Unamuno Marx, Sartre eta Camusekin batera aipatua (eskuina-ri oposatuak denak); 37. orrian Marxekin batera. (Txillardegiren saio bildumaren tituluak berak Unamuno gogorazten du noski: *Contra esto y aquello*, 1912).

⁹⁸ Ik. IGARA [Txillardegí] (1966): «Unamuno ala Jammes?», in: *Jakin* 21, 81-84.

⁹⁹ *Huntaz eta Hartaz*, loc. cit., 37.

¹⁰⁰ *Ib.*, 35.

haundikiak eta herri xehea. Hainbestetan aipatua izan dan demokrazia hura ipuirik haundiena iruditzen zait. Euskal Herrian guk sozialismo bat jartzen baldin badugu, sinetsirik egon gaitezen: mundu guzian bezela (edo bezelatsu bederen, barka) lehenengo aldiz gertatuko da demokrazian bizitzea euskaldunak»¹⁰¹. Hau dena —permiti zaidazue berriro urtea gogoratzea— 1965ean argitaratua da. Ez da EHUKo oraingoxe profesoreren batena.

1957an Txillardegik «Unamuno eragille» izenburuaz artikulu bat argitaratu du *Egan*-en («kondenatu berria delarik»), haren eragina gazterian aitortuz¹⁰². «Eragin ikaragarria izan du gazteen artean aspaldidantik, eta orain ere badu asko, ta zerbaitengatik gertatu da au»¹⁰³. Beste alderdiak ez dira ezkututzen («euskera gorroto izan zuen») ¹⁰⁴, baina haren izpiritu kritiko, existentzialista, kezkarazlea goratzen da. «Esistentzialista guziak bezelaxe, oiturakeritik ateratzen gaitu. Irakurri-ala piztu egiten gera, beste mundu berri bat ikusita. Kanean ikusi ez degun zerbait arkitzen degu argan»¹⁰⁵. Gizarteko giro materialista salatzen du: futbola, dirua, negozioak..., «orduko gazte ero» horrek, frankismo bete-betean. Jendea ongi eta lasai bizi zen. Oso konforme bizi zen «gehiengoa». Eta Unamunori lasaitasun eta patxada hori apurtzea eskertzen zaio hain zuzen. Deskontentua eta ezinegona ereitea. «Gure giro txar onetan, jaso egiten gaitu (...). Zuzpertz egiten digu biotza, piztu egiten gaitu, urduri utzita. Lozorro ta gezurraren bidez lortuko bada pakea, ez du ezertarako nai; ta sasi-pake au iltzeko asmotan dio: «Pakea! Pakea! Pakea! Ala egiten dute korroka gure zingirako igel eta txaiburu guziak»»¹⁰⁶. Unamuno heresea bada, ongi da Elizak hura kondenatzea; haatik Unamuno heresea baino askoz okerrago eta kaltegarriagoa da —zerizkion Txillardegik— bere etekinei baizik begiratzen ez dien jende txit ortodoxo bakezale guztia. Unamunok inkonformismoa irakasten du. «Berari eskerrak arkitu degu askok gure burua». Eta: «(...) Naiago dedala nik Unamuno eragillea, bere akatsak eta guzti, beinere kezkatu ez diran sasi-zentzudun berekoi guziak baño», aitortzarekin bukatzen zuen¹⁰⁷.

Unamunok paradoxak maite bazituen, paradoxa polita izan da hau: euskal historiaren filosofia berria, historiarik gabetsu utzi gintuen

¹⁰¹ *Ib.*, 36-37.

¹⁰² TXILLARDEGI (1957): «Unamuno eragille», in: *Egan* 3-4, 170-177.

¹⁰³ *Ib.*, 175.

¹⁰⁴ *Ib.*, 170.

¹⁰⁵ *Ib.*, 176.

¹⁰⁶ *Ib.*, 177.

¹⁰⁷ *Ib.*

Unamunoren filosofiatik garatu da (arrazoiaren aurka, eta bizi-nahia-
ren, ni-neu izan beharraren, etab., motibo unamuniano klasikoekin).
Baina puntu hau aski izan bedi aipatzea bakarrik, gehiago luzatu gabe.
Beste araketa bat eskatuko luke. Gogoratu beharreko hauxe dago hale-
re: Unamunozalea izateak, adiera unamunotar egokian, ezin adieraz le-
zake etiketa bat (askotan egiten den legez, geu haren apropiatzeko:
«Unamuno liberala!»). Ezta hari amen-amen esatea ere: letraz izango
litzateke hori unamunotarra, ez izpirituz. Egiaz unamunotarra, Unamu-
noren gaudik abiatu eta, harekin eztabaidan, kontraesanean eta kontra-
erantzunean, norbere pentsamendua garatzea bakarrik izan daiteke:
pentsamendu berri bat, kritikoa Unamunorekin eta Unamunori gure
kritikoa izaten utziz. Egotea etorrita gauden puntutik, ehun urte gero-
ago, *Paz en la guerra*-ko Unamunoren filosofiari gaur egingo genioke-
en funtsezko kritika, aski erradikalki unamunotarra ez izatea litzateke,
hau da, kontraesana historian ez aski erradikalki pentsatzea. Izan ere,
oso XIX. mendeko modu positibistan, kasik modu mekaniko batean
dago kontraesana pentsatua haren historian. Salvatore Mitxelenak jada
holakoxe zerbait —aski unamunotar koherentea ez izatea— hizkuntza-
ren kapituluan egotzen zion: Unamunoren arabera, hizkuntzak egiten
du herri baten izpiritua eta nortasuna; eta, Unamunoren arabera, giza-
kiaren aurren-aurreneko grina geu izatea da, ez «beste bat», eta hil ala
biziko borroka egiten omen dugu horregatik. Unamunok, ordea, eus-
kaldunok geure hizkuntza lagatzea eta espainola hartzea proposatzen
digu! «Ikusten duzu, don Migel, Unamunok darantzuizu —argudiatzen
zion Salvatorek— (...). Unamuno, Unamunoren aurka! (...) Zeure filoso-
fiak aldeztzen gaitu eta kondenatzen zaitu!»¹⁰⁸. Bestalde, baina, Salva-
torek bazuen nahikoa askatasun izpirituko, euskaldunon eta gure hiz-
kuntzaren egungo egoera zinezkoaren (auto)kritikan baliatzeko haren

¹⁰⁸ MITXELENA, S., *loc. cit.*, 375. (Eboluzioari adi egon beharko gintzaizkioke: euskara utzi eta espainola hartzeko deia Unamuno positibistak egin du —gero ideia horri beti eutsi badio ere (alegia, egia bada ere, filosofia antipositibista berriarekin, ideia positibista hori ez duela berrikusi); norbere identitatearen gordetzeko antsiaren filosofia, aldiz, geroagoko fase «existentzialistan» da Unamunoren eboluzioan indartsua—. Baina, esan bezala, pentsaera berri hau euskal arazoari aplikatu, ez hizkuntzaren kapituluan, ez kultura eta historiarenean, Unamunok ez du egin: Salvatorek egiten dio hori, Unamunorekin Unamunoren aurka!). Unamunoren kontraesan hori berriki J. J. Granja Pascualek gogorazi digu, «Las ideas lingüísticas de Miguel de Unamuno», in: ZUBIAUR, J. R. - BETI, I. (1996): *Mitos, teorías y aspectos del lenguaje*, Universidad de Deusto, 113: «(...) la lengua es el fundamento verdadero de la personalidad colectiva o nacional, la unión entre lengua y pueblo es constante en la obra unamuniana, aunque sin embargo, en relación al euskera, no veré inconveniente en que desaparezca esta lengua sin que el pueblo se resienta porque cree que la lengua vasca es un mal instrumento para desarrollar el espíritu de los vascos».

euskararen balioespen negatiboa. Euskarak, esango du, ez dauka berez Unamunok esan duen mundu modernorako ezgaitasuna: «Ez berez. Bai ordea zerbait gerez, gerezko gaurkuon moztasunez edo ajolakabez, etsaikeriz ere ez danean. —Amarretik bat euskeraz eta beatzi erderaz diardutenak geiegi ta geienak ditugu gaurkoz euskal jende ikasietan, zoritarrez. Oen aboan eta, ez ote ere?, luman, euskera moztxo azaltzen da, naiko aketz, urri, arlote. Oentzat euskera, Unamunoren ausardiz euren aitortzen ez badute ere, zaila egiten da, menderakaitza, bost-sei urteko umegorriei tentelkeri batzuk juxtu-juxtu adierazteko baizik balio ez duna, ta beste ezer geiagorako zama galanta; ez gutxitan, gainera, sintasi (?) gogorregiz eta erdal kutsu bildurregiz areagotua. —Olako geien oen euskerari buruz, eztira zearoko gezur, ez noski zearoko, Unamunoren irizpide garratzak, mingarri bazaizkigu ere»¹⁰⁹.

Beren artean askotan etsaiak izan diren Arana Goiri, Baroja, Unamunoren, guztien ondorengo berdin eta heredero sentitu da gerraondoko belaunaldia inolako arazorik gabe, «fronteen» gaisetiko mentalitate libre batekin, haiek modu diferentetan egin zuten askatasunaren borrokari eskerrak hain zuzen. Halaxe egin zuen lehenago Unamunok berak bai liberalen eta bai karlisten ondorengo eta gainditzaile bezala posizionatzean. Eta behiala Unamunok bezalaxe, halaber, gerraondoko belaunaldia euskal historiaren eta errealitatearen irakurketa kritiko bat ahalegindu da egiten: baliabide hobeeekin, nik uste, bitartean, historiaren irakurketa ezkertiarra zinez entseiatzeko, inolako esentzialismorik gabekoa, ez metafisikoa, eta ekintzari uko egin gabekoa —aitzitik, ekintzatik eta ekintzaren zerbitzuan pentsatua.

¹⁰⁹ *Ib.*, 360.